

## Herririk Herri |3|

Abadiñoko Independentek eta EB  
ika-mikan dabilz eskolen gainean

## Ekonomia |10|

Rothenbergerreko 211 behargin  
enplegu-erregulazino espedientean



## Berbaz |9|

Onintze Oleaga: "Abiadura Handiko  
Trena proiektu antisoziala da"

# Berriztarrek pilota egun handia biziko dabe bihar

Asier Berasaluze eta Ibai Zabalak binakako bigarren mailako finala jokatu dabe bihar Zornotzan.

Berazaluze IX.ak Xabier Uberuaga izango dau bizkartzain; Zabalak, barriz, Aratz Mendizabal aurrelari.

Ligaxkako lehia biak Mendizabalek eta Zabalak irabazi ditueen arren, ez dago favorito argirik.

24



Irabazten dauenak irabazten dauela, Berrizera etorriko da aurtengo binakako bigarren mailako txapela. Judit Fernandez

## Arrasate-Elorrio zatian AHTa egiten

**Elorrio** • Gobernuaren ordezkariak jakitera emon dauenez, astelehenan ekin eutsien AHTaren Arrasate-Elorrio zatiko obrei. Trazatuak Arrasate, Elorrio eta Aramaion eragingo dau. Elkarlanak eta Elorrioko Udalak desjabetzak oraindino egiteko dagozela gogoratu dabe. **2**

## Ander Lipus, aktore bat eta hamaika proiektu

**KULTURA** • Martxoaren 27an Berrizko Kultur Etxean izango dau Ander Lipus antzezte eta zuzendari markinarrak 'Putzuak lehortzen' lanaren emanaldia. Antzerkiari buruz jardun dogu beragaz. **13**

## Lehia eta jai giroa batuko ditu hilaren 28ko duatloiak

**KIROLA** • Mugarra Triatloi Taldeak Durangoko 3. Duatloia antolatu dau. Guztira, 300 atleta lehiatuko dira. Ekimenari jai giroa be emetoko, deneriko erakustaldiak eta ekitaldiak antolatu ditue. **23**



• **Elorrio**  
Aurrekontuen aurka bozkatu dau oposizinoak **3**

• **Durango**  
Zortzi gazte Dresdenera joango dira 'Etorkizuna eraikitzen' **4**

• **Iurreta**  
Kimuak aisialdi elkarte sortu barria, udalekuak antolatzen **7**



## BOART

Sukaldeak  
Bainugelak  
Horma-armairuak



Tel. / Faxa: 94 682 68 79

Eitua industrialdea, 9 - 6 behea • 48240 BERRIZ

# HERRIRIK HERRI >

ELORRIO



Elorrioren AHTa Iguria eta Aidazu auzoetatik pasatzea aurreikusten dau proiektuak. Astola Aldizkaria, Gerediaga elkarte

## Arrasate-Elorrio zatiko lanak hasi direla dino Gobernu Ordezkaritzak

Elkarlanak eta Elorrioko Udalak desjabetzak egin barik obrak zelan hasi ete leitekezen galdetu dabe

**G**obernuaren Ordezkaritzak jakitera emon dauenez, Adifek Abiadura Handiko trenaren (AHT) Arrasate-Elorrio zatiko obrak martxan jarri ditu. Gasteiz-Bilbo-Donostia Abiadura Handiko Lineako zatia da astelehenean eraikitzen hasitakoa. Zati horrek 4.440 metroko luzera izango dauela eta Arrasate, Elorrio eta Aramaio zeharkatuko dituela azaldu dabe Gobernuaren Ordezkaritzako arduradunek.

Bidearen zati horretan, trenaren ibilbidearen mendebaldeko eta ekialdeko adarrak banatuko dira. AHTaren proiektuak bidearen tarte horretarako hiru bidezubi aurreikusten ditu: Gabaundi (22 m), Kobate (94 m) eta Udalatz (3.184 m). Jakitera emon daben beste datuetako baten arabera, Arrasate-Elorriozatiaren %81,6 bi tuneletan zehar igaroko da.

**AHTaren Arrasate-Elorrio zatiak 4.440 metro dituela eta horreen %81,6 bi tuneletatik igaroko dela azaldu dabe**

Mikel Cabieces Gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak obra horreen hasiera "albeste pozgarria" dela deritzo, "AHTaren alde dagoen gizartearen gehiengorendako zerbitzua eskaintzeko lanek aurrera darraie-

la ikusi leitekela".

### Informazio falta

Elorrioko alkate Niko Morenori galdetuta, obra horreen inguruan Udalak ez dauela "ezelako informazio" jaso erantzun deusku. Morenok dinonez, Elorrioko lurretan oraindino ez da desjabetzarik egin. Atxondo, Abadiño eta Elorrioko Udalak AHTaren gaia aztertze-ko elkartu ziren, eta bilera horreetatik trazatuaren aldaketa aztertzea

**Trazatuak zati horretan Arrasate, Elorrio eta Aramaio zeharkatzea aurreikusten dau**

**Elkarlanak dinonez, dejabetzak egin barik obrak iragartzea "farol bat" da**

erabaki eben, "eragina ahalik eta txikiena izan daiten". Morenoren aburuz, oraingo iragarpen hau "propogandistikoa" da.

Ildo beretik, AHT Gelditu! Elkarlanak be iragarpen honekin Abiadura Handiko trenaren bul-tzatzaileek "farol bat" botu dabela pentsatzen dabe. Argitu dabe-nez, "Arrasaten eta Elorrioren, lur-jabeak desjabetu aurretik, ezin ditue obrak hasi". ■ J.G.

## Errepaso arin bat eskualdeko lanei

Abadiñoaren eta Durangoren ondoren, Elorrio Abiadura Handiko Trenarendako azpiegitura lanak hartuko dituen eskualdeko hirugarren herria dogu. 2008ko uztailean Abadiño-Durango zatia egiten hasi ziren. Lan horreek aurrera darraie, eta 50,7 milioiko aurrekontua daukie. Denera, 3.520 metroko luzera dauka zati horrek eta, esaterako, horreetatik 1.116 metro zubi bidezkoak izango dira. Hain zuzen be, tunel bidezkoak izango dira AHTa egiteko zati horren 1.674 metro.

Durangoko tramuko lanak oraintsu hasi dira; urtarilean, hain zuzen be. AHT Gelditu Elkarlanak salatu dauenez, "bat be informa-

ziorik emon barik eta ezkutuan hasi ditue tramu horretako obrak".

Hasierako proiektutik aldaketa nabarmenak aurreikusi ditu Adifek. Esaterako, Izurtza trenaren ibilbidetik kanpora geratu da.

### Protesta ekimenak

Lanak hasi direnetik zein hasi aurretik, hainbat protesta ekitaldi izan da Abiadura Handiko Trena eraikitzearen aurka. Esaterako, Durangaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladek AHTaren aurkako eguna antolatu dabe martxoaren 28an, Elorrioren. Egun horretan AHTaren aurkako jarrera erakutsiko dabe.

Bere sasoiaren, Elorrioren eta Atxondon herri galdeketa egin zitueen. Horrez gainera, hainbat manifestazinogaz zein desobediencia zibileko ekintzagaz be trenaren kontrako jarraera azaldu gura izan dabe. ■ J.D.

## Labainkorrak diren zonaldeak tratatuko ditue

Igaz hasitako bideari jarraituz, herrian labainkorrek diren zonaldeetako lurzoruei konponbidea emoten jarraituko dau Udalak. Tratamendu likido bat emonda, arriskutsuak gertatu daitekezen lurzorua lakartu egiten dira, jentek labain egin daian eragotziz. Horrez gainera, badauka beste abantaila bat: harlauza garbi mantentzen dau. 18.000 euroko aurrekontua dauka egitasmoak.

**Aurten Kurutzebarrin, Nizeto Urkizun, Musiko Arriolan eta Don Tellon probatuko dabe**

Igaz Erreka kalean, plazan eta kale kantoi batzuetan (Amiletan eta Kondekuan) egindako probekin oso gustura dagoz udal arduradunak, eta aurten ildo beretik jarraitzea erabaki dabe.

Aurten Musiko Arriolan, Don Tello, Nizeto Urkizun (kiroldegiko espaloian), Kurutzebarrin (erreka ondotik doan zatian) probatuko dabe.

Orain urte batzuk Berrio-Otxoa oinezkoendako moldatu eben eta, harlauza labainkorra zela ohartuta, zorua makinekin lakartu eben. Igaz bardin egiteko asmoa zeukien, likido bidezko tratamenduaren proposamena heldu jakenean. Emaizta ona emon dauenez, tratamendu horregaz segituko dabe. ■ J.D.

## Iturri kultur etxeko Munabe eta Uratsa gelak atondu ditue

Munabe eta Uratsa gelak zein dantzarako erabiltzen dena altzariz atonduta, Udalak amaitu dau Iturri kulturguneko altzari hornidura. 37.000 euro bideratu ditue asmo horretara.

Munabe gelan apalak eta armairuak ipini ditue. Uratsa gelan Intxorta asti elkarte batzen da, eta hainbat adineko gaztetxoak elkartzeko guneak antolatu ditue. Azkenik, dantza gelan manparak ipini ditue, besteak beste. Baleiteke etorkizunearan erakusketa aretoan aldaketa txikiak egitea, baina gainerakoan amaitu ditue Iturriko hornidura-lanak. ■ J.D.

**37.000 euro bideratu ditue Iturri kultur etxea altzariz hornitzeko lanak amaitzeko**





# Aurrekontuak atzera bota ditu oposizioak

EAJ, PSE-EE eta EHAK kontra bozkatu dabe

Elorrioren 2008ko aurrekontuak luzatu egin ditue, oraingoz. Izan be, orainsu aurrekontuak eztabaidatzeko egindako udalbatzarrean, oposizioak-EAJ, PSE-EE eta EHA-Gobernu Taldearen proposamenaren aurka bozkatu dau.

Igazko azaroan aurrekontuak elkarregaz osatzeko proposamena luzatu arren, Gobernu Taldearen aldetik ezelako erantzunik ez daugelako jaso kexu zen EAJ. Horrez gainera, agiri osoa aztertzeke "hamar eguneko epea bakarrik izanda, ekarpen baliogarririk egitea ezinezkoa da", gaineratu eben.

Batzordean egindako botazinoan abstenitu ondoren, gero

**Gobernu Taldeak oraindino ez dau argitu aurrekontuak barriro aurkeztu ala 2008koak luzatuz segituko dauen**

udalbatzarrean EAJ zein Elorrioko Herritarren Aukerak aurrekontuen kontra bozkatu izana gogor kritikatu eban Niko Moreno alkateak. Gainera, alderdi jeltzaleak proposamena bidali aurretik Gobernu Taldeak dagoeneko berea bidalita zeukala esan eban; batzorde danak proposamenak jasotzeko zabalik zeudela zinoena.

PSE-EEko zinegotzi Mari Carmen Muñozek batzordeetan aurretiaz erabakita dagozen asmoak plazaratzen direla kritikatu eban: "Dena erabakita ekartzen dozue". Hainbat diru-atalen kontra be agertu zen; euskal preso senitartekoei zuzendutakoa, adibidez.

Alkatearen berbetan, Udalean mozino bat baino gehiago onartu da preso sakabanaketa eta zigorra senitartekoei be luzatu izana gaitzesten dauena. "Mozi-noetatik konpromisoak irteten dira, eta hortik mandatuak". ■ J.D.

## ZALDIBAR

# Hilea amaitu arte emon leiteke izena lan-poltsan

Langile euskaldunekin osatu gura dabe zerrenda

Martxoaren 28a artekoa izango da Udaleko hainbat langintzatan jarduteko zabaldu daben lan poltsan izena emoteko epea. *Behar ditugu* deitu daben egitasmo horren barnean dagoz: ume eta adinekoen zaintzaile lanpostuak, kirol begiraleenak, aisialdi begiraleenak eta eskola partikularrak emoteko irakasle euskaldunenak.

Udaleko lau lan-poltsa horreetan izena emon ahal izateko baldintza nagusia euskaraz jakitea izango da. Zerbitzu horreek euskaraz izan daitezen beharrezko ikusi dabe egitasmoa laugarren urtez martxan jartzea, Udaleko Euskara Zerbitzukoek dinoenez.

Interesa daukienek zerrenda batean edo gehiagotan emon leikie izena, martxoaren 28a baino lehenago curriculum Udaleko bulegora igorrita. Ondoren, aitatutako zerbitzuak euskaraz eskaini leikezen jentegaz zerrenda osatu eta herritarrek baliatu ahal izateko eskuragai ipiniko dabe: apirilaren 17tik aurrera izango dira zerrendak eskuragai. ■ I.E.

**Martxoaren 28a arte emon ahalko da lan-poltsan izena, eta apirilaren 17an ipiniko dabe zerrenda eskuragai**

## ABADIÑO

# Alk gurasoei laguntza ez emon izana salatu dau EBk

Independentetek "akats administratibo bat" izan dela argitu dabe



Traña-Matienako eskolek EBren eta Independenteen arteko eztabaida piztu dabe.

Traña-Matienako eskoletako Bigarren Hezkuntzako Guraso Elkarteak eskatutako diru-laguntzak ika-mika sortu dau EBren eta Independenteen artean. Ezker Batuak, prentsa-ohar bitartez jakitera emon dabe-nez, igazko urrian Guraso Elkarteak 2008-2009 ikasturterako eskolaz kanpoko ekintzetarako eta laguntza psikologikorako diru-laguntza eskatzeko proiektua aurkeztu eban. Azaldu dabe-nez, "hila-bete batzuk geroago, diru-atal hori kobratu ez ebenez, alkatetzari horren arduraren hartzeko eskatu eutsien". Martxoaren 6an gai horren inguruan berba egiteko berriro alkateagaz batzartu zirela be badino Abadiñoeko EBko

**EBk Traña-Matienako ikastetxera bideratutako diru-atal bategaz zer gertatu den galdetu deutso Alri**

ordezkariak. Kritika horri erantzunez, Independentetek akats administratibo bat gertatu dela argitu gura izan dabe. Alkatetzan dagoen alderdiaren aburuz, EBko "pertsona horrek" eskolakerabiligura dituen Gobernu Taldea kritikatu eta desprestigiatzeko.

**Guraso Elkartearen eskolaz kanpoko ekintzak eta laguntza psikologikoa kolokan dagozela dino EBk**

**EBkoen jarrera "zinikoa" dela dino Alk, gobernuan zegoenez ez ebelako "konpromisorik bete"**

### Elkar kritikatu

Independenteen eta Ezker Batuakoen arteko tirabirak ez dira Guraso Elkartearen jardunera mugatzen. EBko ordezkariak dinonez,

"ikastetxera bideratutako 136.000 euroko diru-atala beste norabaitera zuzendu dabela susmatzen dogu". Legegintzaldi osoan Matienako ikastetxean ez dela "ezelako obrarik" egin azpimarratu dau, eta, horretara, "hobekuntzak egiteko aukera" galdu dela. "2007an jolas-gunea egokitzeke 36.000 euro aurreikusita zegozen arren, oraindino obra hori egin barik dago", salatu dau EBk. Independenteen jarrera "ardurabakoa" eta "agintzaila" dela deritzo, "kontuan izanda oposizioan eta Gobernuan zelari jokatzeko daben".

Ezker Batuko ordezkariak gai horri buruz "horrela" berba egitea "zinikoa" dela deritzo Gobernu Taldeak. Lau urtean gehiengo osoagaz gobernuan egonda ez ebal hitza bete salatu dabe. Aurreko legegintzaldian EBk "eskoletan hartutako konpromisoa" ez ebal hitza bete gogoraz dabe, eta orain Independenteei gelditu jaken herentzia azpiegitura zaharkitu bat dela. ■ Jone Guenetxea

**EXCAVACIONES JON**

MOTA GUZTIETARAKO INDUSTRIETARAKO HONDAKIN BERRIA

Jon Garitugainia Gallastegui

PAISAJERIA, OBRA, TERRAZA, HERRIKO PAISAJERIA

Tel: 943 17 30 24 + 943 17 30 24

**Durangaldeko Baserritarren Elkartea**

**DIBA**

**KOOPERATIBA**

Murueta, 6  
Tel.: 94 681 87 92  
48200 ABADIÑO BIZKAIA



DURANGO

# Unibertsoa ezagutzeko gonbita, Izarrak elkartearen eskutik

2009a Astronomiaren Nazinoarteko Urtea izendatu dabela-eta ekitaldi sorta antolatu dabe

**G**alileo Galileik 1609an jarri eban lehenengoz teleskopio bat zeruari begira. Ordutik 400 urte dira, eta makina bat aurkikuntza egin ditue astronomia eta unibertsoagaz lotuta. Urteurrena aintzat hartuta, Astronomiaren Nazinoarteko Urtea izendatu dau 2009a Unescok. Horren haritik, Izarrak astronomia elkarteak hainbatekitaldi antolatu ditu unibertso zabalera gerturatzeko aukera eskainiz.

**Agustin Sánchez Lavegak berbaldia emongo dau martxoaren 28an**

San Agustin kultur gunean erakusketa zabalduko dabe Izarrak elkarteak hila honen amaieran. Martxoaren 26, 27 eta 28an, teleskopioak, beste astro batzuetan edukiko geunken pisua erakusteko aukera emoten daben pisu planetarioak eta maketa argitzaileak (urtaroak, eklipseak...) ezagutzeko aukera izango dabe, besteak beste, gerturatuko direnek. Horretarako aukera 17:00etatik 20:00etara izango dabe.

**Berbaldia**

Bestalde, *Planetas y vida en el universo* izenburupean berbaldia prestatu dabe, martxoaren 28rako. Agustin Sánchez Lavega gonbidatu dabe hizlari lez. Sánchez Lavega astrofisikaria, fisika aplikatua katedraduna eta EHUko Zientzia Planetarioen Taldeko zuzendaria da, argitu dabenez. Eguzki sistema beste planeta batzuetako atmosferi buruz be hainbat ikerketa kaleratu izan ditu.

San Agustin kultur gunean jardungo dau Sanchez Lavegak 19:30ean, eta, hurreratuko direnek planetario ilustratu bat jasoko dabe opari Izarrak elkartearen eskutik. ■ A.B.

**Erakusketa prestatu dau Izarrak elkarteak San Agustin kultur gunean martxoaren 26, 27 eta 28rako**

**Planetario ilustratu bat emongo deutsee berbaldira hurreratuko diren herritarrei**



Igaz Dresdeneko (Alemania) gazteak izan ziren Durangon egitasmo beragaz. Iban Gorriti

# Elkarbizitza egitasmoak Dresdenenera daroaz gazteak

'Etorkizuna eraikitzen' egitasmoaren eskutik joango dira zortzi gazte

Bosgarren urtea bete dauen 'Etorkizuna eraikitzen' egitasmoaren bitartez Durangoko zortzi neska-mutil Dresdenenera joango dira datorren astean; San Jose Jesuitak ikastetxeko, Frai Juan Zumarraga institutuko, Kuruziaga ikastolako eta San Antonio-Santa Rita ikastetxekoak. Bonbardaketa sufritu eben hiru urien —Conventry (Bretaina Handia), Dresden

(Alemania) eta Durango— arteko topaketa programak 14-16 urte bitarteko gazteak elkartzen ditu, kultura, historia eta bizipenak elkartrukatzeko. Dresden 1944an bonbardatu eben, eta datu ofizialik ez dagoen arren 25.000 herritar inguru hil ziren.

Durangon, Coventryn eta Dresdenen elkartu ziren, hurrenez hurren, lehenengo txandan.

Igaz abiatu eben bigarren txanda, Durangon. Orduan, Dresdeneko zortzi gazte izan ziren hemen. Ekinenak "elkarren artean horren desberdinak diren hiru uriek elkar ezagutzeko" dau helburu, Ander Gorrotxategi zinegotziak dinonez. Martxoaren 28tik apirilaren 4ra, Dresden uria eta bertako kultura eta bizimodua ezagutzeko izango dabe gazte durangarrek. ■ A.B.

# Krisia hartu dabe berbaigai Caritasen

Bizkaiko Caritaseko zuzendari Mikel Ruiz gonbidatu dau Andra Mari parrokia elkarteak

Krisi egoeraren aurrean elkartasuna eta kontsumo arduratsua sustatu behar dela nabarmendu dau, Durangon, Bizkaiko Caritaseko zuzendaria den Mikel Ruizek. Uribarriko Andra Mari parrokia elkarteak gonbidatuta, *Krisia, kristauak eta konpromisoa* berbaldia eskaini dau Ruizek, "egoera honi aurre egiteko gizarte osoaren — eta bereiziki kristauen — konpromisorako argibideak" emonez.

Azken hilabeteotan, Caritasek Bizkaian dituen zentroetara hurreratu den jente kopurua hazi egin dela adierazo dau Ruizek, "krisiaren eta enplegu galeraren eraginez"; batez be, Harrerarako eta Lan Bitartekotzarako zentroetan.

**Garizumari begira**

"Sistema kapitalistaren azpian diren askonahi, norberekeria eta sasiko balioengaitik heldu gara egoera honetara", Ruizen berbetan, eta Garizuma aldi honetan "kontsumo arduratsua eta solidariara eroango gaituen 'barauaren' alde"

egitera deitu dau. "Langabeziaren zailtasunek harrapatutakoengana" hurreratzearan alde be egin dau Ruizek.

**Caritasek dituen zentroetara hurreratu den jente kopurua gora egin dau azken aldian**

**"Kontsumo arduratsua eta solidarioa" egitera deitu ditu Mikel Ruizek entzuleak**

Caritasek bazterketa jasaten daben edo jasateko zorian dagozen gizon eta emakumeei eskaintzen deutse arreta. Tabirako Caritasek 30 bat boluntariok harrera egitasmoetan (Durango eta Traña-Matiena), 'Ekorropan', 'Zaintzan' (lan bitartekotza etxeko lanerako eta pertsonen zainketarako) eta sentsibilizazio arloan laguntzen dau iraunkortasunez. ■ A.B.

# Udaleko ordezkariak Tindouf-eko kanpamenduetan

Tindoufeko errefuxiatuen kanpamenduetara joan da asteon Udaleko ordezkari bat. Natxo Martinez jeltzalea eta Gizarte Ekin-tza presidenteagaz batera, Talde Mistoko Zorione Arana eta EB-Berdeak taldeko Sabin Bilbao joan dira, Gizarte Ekintzako teknikariak ez eze.

EAEko 102 erakunde dagoz anaidetuta herri sahararragaz. Durangoko Daora herriagaz dauka anaidetasun-ituna. Hitzarmenok suspertzea dau helburu bidaia, "euskar erakunde eta sahararren artean anaidetasun erraldoia sortzeko". Nabarmendu dabenez, "garrantzi handiko" unea da hau, 1975etik darraien gatazkari irtenbide "zuzen, bidezko eta behin betikoa" emateko. Maiatzaz geroztik egoera "larriagotu" egin dela azaldu dabe, "lurralde okupatueta sahararren borroka eraginkor eta baketsua, Intifada, areagotzean". ■ A.B.

**Durangoko Udalak Daora herriagaz dauka anaidetasun- hitzarmena**



**EKODEN**



**HORTZETAKO ASISTENTZIA**

**R.P.S. N°262/07**


Jon Irazabal medikua (Mediku Estomatologoa - Zuzendari Medikoa). Elkargokide-zenb.: 667.  
 Javier Etxaniz medikua (Odontologoa - Implantologia). Elkargokide-zenbakia: 1114.  
 Susana Sierra medikua (Odontologoa - Ortodontzia). Elkargokide-zenbakia: 1084.  
 Ainhoa Zulueta medikua (Odontologoa - Odontologia). Elkargokide-zenbakia: 1211.

**Gure profesional-taldeak goi-mailako prestakuntza du eta etengabe prestatzen dihardu gainera**

**Honako baliabide hauek ditugu: 3 kabinete handi, aho-barruko ganbera, erradiologia panoramikoko gela, indarreko arautuegiko kontrol zorrotzen arabera esterilizatzeko sistemak eta kabinete informatizatuak, besteak beste.**



**Hauxe eskaintzen dizugu: INPLANTOLOGIAKO TRATAMENDU AURRERATUAK, hala nola, "ALL ON FOUR" izeneko teknika (4 inplante bakarrik, arkadura bakoitzeko), ordenagailuaren bidezko kirurgiari onura atera diezaiozun, HORTZAK EGUN BEREAN JARRIKO zaizkizu eta. Hortz-protesia mugitzen bazaizu, hezurreen inplanteen bidez finkatzeko tratamenduak jartzen ditugu zure eskura.**



**Hauek ere eskaintzen dizkizugu:**  
**ORTODONTZIAKO TRATAMENDU AURRERATUAK, MARRUSKADURA GUTXIKO BRAQUETen bitartez, ZURE HORTZAK URTE BATEAN BAKARRIK LERROKATZEN** baitituzte.  
 Edota **BRAQUET ESTETIKOAK, aukerakoak NAGUSIENTZAT**



**FINANTZAKETA 12 HILETAN INTERESIK GABE**

**PREZIO BEREZIAK**  
 mutualitateak, aseguruak, PADI...

**Hortzetako Klinika. Instalazio Berriak dituen, non hortzetako sektoreko tratamendu aurreratuak aplikatzen ditugun, zure ekonomia atxidu gabe, oso prezio lehiakorretan**



**Gure tratamendu guztiak, KALITATEKOAK ETA BERMATUAK**

**Prezioak Web Orrian Kontsulta Ezazu**



**ETENIK GABEKO ORDUTEGIA, 10:00etatik 20:00etara, ZURE ARRETA ERRAZTEKO**

**Arkotxa, 4 etxabea :: DURANGO :: 94 621 78 22**

**www.clinicaekoden.com**



ATXONDO

# Zuhaitz landaketan jardun eben umeeek

Ludoteka parean egin eben zapatuko ekitaldia

Joan zen barikuan herriko eskola inguruan egin eben Zuhaitz Eguna ospatzeko antolatutako landaketa. Zapatuan, barriz, Apatako Ludotekaren pareko lurtean landatu zituen umeeek arbolak, Marixurri Aisialdi taldeak antolatutako ekitaldian, herriko ume batzuek Atxondotik kanpora hartzen ditueelako eskolak eta barikuan herriko eskolaren inguruan egin eben landaketan parte hartzerik ez ebelako izan. Eguraldia lagun izan eben, eta gerturatutako ume atxondarrak izan ziren zuhaixkak landatu eta ureztatzearen ardura izan ebenak. Zaintzailizango ditue aurrerantzean.

Zuhaitz Eguna dela-eta, Bizkaiko Aldunditik 300 zuhaitz jaso zituen Udalak, eta horretarako zenbait herritarren eskura ipini ditue. Euren lursailean landatzeko Udaletxean eskura ipinitako zuhaitzak eskuratzeko dozena bat herritarrek egin eben eskaera. Gainerakoekin, Udalak daukan lursail batean haztegi bat egiteko asmoa agertu dau Udalak. ■ I.E.

**Eguraldia lagun izan eben zapatuan arbolak landatzen jardun eben umeeek, eta pozik egin eben landaketa lana**



Barikuan eskola inguruan eta zapatuan Ludoteka parean egin eben landaketa. Judit Fernandez

## Etxeko olioia jasotzeko ontzia ipiniko dabe

Eman balioa olioari lema daroan kanpaina ipini dau Atxondoko Udalak martxan, herritarraueen etxeetan erabilitako sukaldeko olioia birziklatzera bultzatu guran. Olioaren birziklapenerako gomen-dioak jasotzen dituen diptikoa etxez etxe banatzeaz gainera, datorren astetik aurrera olio erabilia batzeko ontzia ipiniko dabe herrian; Apatako Jose Antonio Agirre kalean ipiniko dabe ontzia, telefono kabina ondoan.

Orain arte etxean erabilitako olioia jasotzeko ezelako zerbitzurik izan ez den herrian, olioia birziklatzea sustatu gura dabela dino Gobernu Taldeak. Udalean azaldu dabenez, proba moduan jarriko daben Apatako ontziak izaten dauen erabileraren eta herritarren erantzunaren arabera, Axpe eta Arrazola auzoetan be ontziak ipintzeko asmoa daukie, birziklatzea erraztu helburuz. ■ I.E.

**Datorren astean ipiniko dabe sukaldeko olio erabilia berziklatu ahal izateko ontzia, Jose Antonio Agirre kalean**

IZURTZA

## AHTaren kontrako eguneko bazkaria

20 lagun inguru batu ziren elkarteko bazkarira

Bertsolariek, Eneko Abasolo "Abar-kas" iurretarrak eta Gorka Lazkano berriztarrak ederto girotutako bazkaria izan zen zapatuan gazteek AHTaren kontrako egunean Argintxo Elkartean egin ebena.

**Bertso bazkaria izan zen martxoaren 14an antolatutako ekitaldien artean jentetsuena**



Mahai bete jente batu zen Argintxo elkarteko bertso bazkarian. Judit Fernandez

Bazkalorduen aurretiko ekimenean eta gaueko musika kontzertuetan itxaroten eben baino -eta igaz baino- jente gitxiago batu zen: mendi-martxara bazkaria gerturatu zirenen erdia joan zirela azaldu dabe antolatzaileek.

**Sagardotegira irteera**

Herriko gazteek martxoaren 21erako antolatu eben sagardotegirako irteera, jai egunetan jentea kanpoan izango dela-eta, atzeratu egin dabe, beste asteburu batean jente gehiago batzeko asmoz. ■ I.E.

## Udaleko lan-poltsa eratzeko proposamena

Udalbatzar batean mahaigaineratu eben eta euren interneteko orrialdean be argitaratu dabe Izurtzako alderdi jeltzaleko zinegotziek proposamena: Udaleko lan-poltsa eratzeko da proposamena, eta, dinoenez, langabeziaren hazkundera aurre egiteko modu bat izan leiteke aitatutakoa, azpimarratzen dabenez, "erregulazio espedienteak, kaleratzeak, eta abar bizi dituen herritarrendako aukera eskaintzeko".

**Udaleko lanpostuetarako izurtzarren zerrenda osatzea jaso dabe proposamenean**

Udalan sortzen diren lanpostuak langabezia edo lan egoera gatxa bizi daben izurtzarrek betetzea da, esan dabenez, jeltzaleen proposamenaren helburua. Horretarako hurrengo egin beharrekoa udal kudeaketaren batzordean ordenantza aurkezte litzake, euren arabera, gero udalbatzarrean aurkeztu eta bozkaturia izateko. ■ I.E.

MAÑARIA

## Herrian gehien eta gitxien gustatzen jatzuna iruditan

Goian aitatutakoa da argazki lehiaketako gaia

Apirilaren 30a arteko tartea izango dabe parte hartu gura dabenek Mañariako Argazki Lehiaketara argazkiak bidaltzeko. Aurtengo edizino honetarako, herrian, Mañarian, gogokoen dabena edo gitxien gustatzen jakena islatzen daben argazkiak egiteko baldintza zehaztu dabe antolatzaileek.

Sari bi banatuko ditue; epaimahaiak banatuko dauena eta herritarrek emondako botoen araberakoa. Horrela, gai baktari buruzko argazki onenari 200 euro emongo deusaz epaimahaiak, eta hautatutakoen artean gogokoen dituenak aukeratu ditue herritarrek.

Lehiaketara aurkeztutako argazkiei buruzko herritarren eritzia batzeko, maiatzaren 18tik 24ra ipini dabe data. Hain zuzen be egun horreetan egingo dabe aurkeztutako lanen eraskusketa. Ondoren, ohitura denez, maiatzaren 24an, Azoka Egunean egingo dabe sari banaketa ekitaldia. Izena emoteko, martxoaren 31 artekoa da epea. ■ I.E.

**Epaimahaiak zein herritarrek euren botoa emoteko aukera izango dabe lehiaketan**

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz





**IURRETA**

# Kimuak aisialdi elkarteak sortu dabe

Eskualdeko gazteei begirako "egitarau alternatiboa" eskaini gura dabe taldekideek

Durangaldeko gazteei aisialdirako "egitarau alternatiboa" eskaini guran sortu dabe Kimuak aisialdi elkarteak Iurretan. Pausoak emoten hasi barri da hamabi lagun ingurubatzten dituen elkarteak, eta harre-ra ona itxaroten dabe eskualdeko gazteen artean.

Orain buru-belarri sartuta dabilz udalekuak antolatzen.



Getxotik Zarautzera udaleku ibiltaria antolatu gura dabe, ekainaren 29tik uztailearen 12a bitartean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 4. mailatik 18 urtera arteko neska-mutilei zuzendutako eskaintza da hori. Bestalde, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik eta DBHko 2. maila arteko gazte-txoei begira udaleku finakoak prestatzen dihardue; uztailearen 14tik 27a arte, Albenizen. Dagoeneko

**Pausoak emoten hasi barri den elkarteak udalekuak antolatu guran dihardu buru-belarri lanean**

zabalik dago izena emoteko epea, jakin eragin dabenez. Horretarako, Ibarretxe kultur etxera edo martxoaren 24an eta 26an Durangoko Kurutzia ikastolara hurre-ratu leiteke; [kimuak@kimuak-elkartea.com](mailto:kimuak@kimuak-elkartea.com) helbide elektronikora be bidali leiteke mezua.

Kimuak aisialdi elkarteak, oraingoan, udalekuan jarri ditu indar guztiak; azaldu dabenez, halan be, ez dabe baztertzen gazte-xoendako bestelako ekitaldirik be antolatzea. ■ A.B.

**BERRIZ**

# Anje Duhalderen kontzertua Korrikako ekimenen artean

Apirilaren 4an, Toki Ona jatetxean abestuko dau lapurtarrak afalostean



Aurkezpen ekitaldiaren ondoren Jon Maiaren *Bidaia intimoak* dokumentala emon eben.

**K**orrika apirilaren 4an igaroko da Durangaldetik eta Berriztik. Horren harira, Berrizko AEK-k herrian antolatutako ekitaldien aurkezpena egin eban eguaztenez Kultur Etxean.

Apirilaren 4an, arratsaldeko 18:00etan, Giriguai antzerki taldeak *Zirko Ttipia* ikuskizuna eskainiko dau Olakueta plazan. Gauean, 21:30ean, AEK-k afaria antolatu dau Toki Ona jatetxean. Afalostean Anje Duhaldek kontzertua eskainiko dau. Afari-kontzertuan parte hartu gura dauenak apirilaren 2a arte emon leike izena Toki Onan bertan. 16 euro da izen-emotea.

Urtero euskararen alde lan egin edo euskararen sustapenean lagundu daben talde, elkarte edo lagunei eskaintzen deute eguna Berrizko AEK-k. Aurten lehen hizkuntza beste bat dabela euskara ikasi dabenei

**Korrika 8:45ean iritsiko da; Iturriza, Zengotibengoa eta Geltoki kaleetatik pasatu, eta Zaldibarrerantz joango da**

eskaini deute. Ildo horretan, Jon Maiaren *Bidaia intimoak* dokumentala emon eben.

Korrika 8:45ean helduko da Berrizera, Elorriotik. Iturriza, Zengotibengoa eta Geltoki kaleetik, Zaldibarrera joango da. ■ J.D.

**GARAI**

# Otea-Loran herritarren eritzia jaso guran

Elkartearen 25. urteurrena ospatuko dabe aurten

Urtemuga garrantzitsua izango da aurtengoa Garaiko Otea-Loran elkartearentzat, 25 urte beteko dira-eta sortu ebenetik. Data hori

**Garaitarren proposamen eta aholkuak jaso gura ditue ospakizuna prestatzeko**

ospatzeko zeozer berezia egin gura dabe, eta horretarako, herritarren parte-hartzea eskatu dabe, euren eritzia emon daien.

Elkartekoek adierazo deuskuenez, uztailean egin gura leu-kie ospakizuna, "herriko jaien aurretik". Dena dela, "oraindino ez dago ezer itxita", Otea-Lorane-koen arabera. Izan be, garaitarren proposamen eta aholkuak jaso gura ditue, eta hori bi eratara egin lekie herritarrek: astelehe-nero 19:00etan elkartera joanda edo zuzendaritza batzordeko kideei jakinarazota.

Otea-Lorane-ko estatutuak berritu ditu oraintsu, eta 90etik gora bazkide ditu. ■ M.O.

**UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!**

**ATE IREKIAK**

*Etorkiko zarela jakinarazi!*

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**APIRILAK 25 - 11:00** larunbata

ARRASATE-MONDRAGON AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // [bguerenu@eps.mondragon.edu](mailto:bguerenu@eps.mondragon.edu)

**MARTXOAK 28 - 11:00** larunbata

ORDIZIA AULA MAGNA Tel.: 943 88 00 62 // [eurkia@goierrieskola.org](mailto:eurkia@goierrieskola.org)

**ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**APIRILAK 4 - 10:00-13:00** larunbata

ORATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // [cgarate@eteo.mondragon.edu](mailto:cgarate@eteo.mondragon.edu)

**APIRILAK 2 - 18:00** osteguna

IRUH AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // [inlartabal@bidasa.etes.mondragon.edu](mailto:inlartabal@bidasa.etes.mondragon.edu)

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**APIRILAK 23 - 18:00** osteguna

ESKORIATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // [sarreol@hubezi.mondragon.edu](mailto:sarreol@hubezi.mondragon.edu)

OTXANDIO

# Iñaki Pujanak kalean beharko leukela salatu dabe herrian

Pujanari espetxean "beste hamabi urte gehiago bete eragin gura deusiez"

Iñaki Pujana Alberdi presoak 2009ko otsailaren 23an kartzela zigorra bete ebala eta halan be espetxean jarraitzen dauela salatzeke, manifestazioa egin eben Otxandion zapatuan. Amnistiarekin Aldeko Mugimenduak dinonez, "itxaroten genduen baino herritar gehiagok elkartzuna eskaini deusio Pujanari".

**Pujanak, 2009ko otsailaren 23an kartzela zigor osoa bete eban arren, oraindino espetxean jarraitzen dau**

Pujana 1987an Lapurdin atxilotu eben, eta dagoeneko 22 urte kartzelan emon ditu. Frantzia lau urteko espetxe zigorra bete eta gero, herrialde horretako polizia indarrek Espainiaratu eben lehengo presoak izan zen. Espainian 1973ko zigor kodeagaz epaitu eben. Kode horrek behar egitearren, ikastearren eta tailerretan parte hartzearen aurreikusitako erredentzioak aplikatuta, hamazortzi urteko espetxe zigorra ipini eutsien. Zigor hori be bete dau. Orain, Pujana epaitu ebenean indarrean ez zegoan Parot doktrinan oinarrituta, erredentzioen eragina txikitu gura dabe, eta "Iñaki Pujanari beste hamabi urte bete eragin gura" deusiezela salatu dau AAMak. ■ J.D.



Herritarrek manifestazioa egin eben zapatuan. Kepa Aginako

## Krisia ulertu eta aldatzeko berbaldiak

Kementsu elkarteak eta Gazte Asanbladak *Hiru aukera krisia ulertzeko* kanpaina martxan ipini dabe, egoera ekonomikoaren gakoak "denontzat ulergarri egin eta alternatibak bilatzeko". Joseba Garmendia irakaslearen berbaldia datorren barikuan, hilaren 27an, Kultur Etxean izango

da. Ondoren, apirilean ELAK eta LABek krisialdiak gizartean dituen ondorioez jardungo dabe. Maiztean, azkenik, gizarte eredu alternatiboak aztertuko ditue. Dagoeneko, etxe guztietara *Los amos del mundo* DVDa banatu dabe, adierazo dabenez. ■ Maria Gonzalez

**"Egoera ekonomikoaren gakoak denontzat ulergarri" egin gura ditu kanpainen**

MALLABIA

## Durangaldeko Txistulari Egunak "giro ederra" ekarri eban domekan

Durangaldeko 54. Txistulari Egunak herritar asko bildu eban. Txistulariak goizeko 10:00etan kalejiran irten eben, eta gero Jasokunde eta Mendibil abesbatzekin eta Metal taldeagaz kontzertua emon eben. Mallabitarrek eliza bete eben. Ondoren, 13:00etan, plazan dantzarako "giro ederra" egon zela azpimarratu dabe.



J. Fernandez

## Beharrik bako herritarrendako laguntasunak

Lana galdu eta gero langabezia soldata eta familia izateagaitik jagoken sorospena amaitzen jaken herritarrendako aparteko laguntzak kudeatzen ditu Udaleko Ongizate Sailak: oinarritzko errenta eta gizarte larrialdietarako laguntasunak, suertatzen jaken edozein lan onartzeko baldintza sinatuta.

Dena dela, Udalak aurreko urteko diru-sailekin langabezia tasa barriari aurre egin behar izango deusio, eta horrek murrizketak ekarriko ditu. INEMeko datuen arabera, Mallabian otsailaren 50 bat lagunek langabezian izena emon dabe. Kaltetuenak 25-44 urte bitarteko andrak izan dira: langabetu barrien %24 osatzen dabe. ■ M.G.

DURANGO

## Kontakizun laburren lehiaketa

Tokiko komertzioa: gai horixe landu beharko dabe +Dendak Iurretan eta Durangoko merkatari elkarteak antolatutako kontakizun laburren lehiaketan parte hartuko dabeneke. Euskara zein gaztelera erabili leiteke kontakizuna idazterakoan, baina, hiru orrialdeko luzera izango dau gehienez. Sail bi sortu ditue: 18 urtera artekoak eta 18 urtetik gorakoak, eta bakoitzean zazpi kontakizun onenak sarituko ditue +Dendak-eko komertzioetan trukatu leitekezen 10 eta 200 euro arteko erosketa-baleekin. Apirilaren 24a arte aurkeztu leitekez kontakizun laburrak, eta, irabazleak maiatzaren 5ean jakinarazoko ditue.

## Arraza diskriminazioa, txontxongiloen eskutik

Arraza Diskriminazioaren Aurkako Nazioarteko Egunagaz bat eginda, *Murren bidai*a txontxongilo ikuskizuna eskainiko dabe



San Agustin kulturgunean. Udaleko Inmigratzino Sailak prestatu dau ekitaldia.

Martxoaren 21ean, zapatuan, izango da, 18:00etan. Arraza diskriminazioa da euskarazko ikuskizun horren muina. Doan izango da sarrera.

ELORRIO

## Merkatariak gustura Aukera Azokak izandako harreragaz

Aukera Azoka egin eben joan zen bariku eta zapatuan kiroldegian, eta Elorrioko Merkatarien Elkarteak positiboki baloratu dau ekimena. Oro har, jente gehiago batu zen barikuan, segurutik asteroko azokak eraginda. Halan be, pozik dagoz herritarren artean izan dauen harreragaz. Urtero legez, ildo guztietako standak ipini zitueen: altzariak, lentzeria, janaria, bitxiak, oinetakoak, edertasun produktuak... Guztira, 15 stand inguru atondu zitueen kiroldegiaren luze-zabalean.



J. Fernandez

ABADIÑO

## Floren Aiozek abiatuko ditu Bazkaloste Kulturalak

Bazkaloste Kulturalak izenburupean berbaldi sorta eratu dabe Abadiñon. Floren Aioz gonbidatu dabe hizlari zapatu honetan txer abiatuko den ekimenari hasiera emoteko. Konbentzinoko gerla Euskal Herrian (baita Abadiñon be), eta I. Karlistadaren hasiera hartuko ditu berba Aiozek, martxoaren 21ean, Zelaieta hotelean. Hitzordua 17:00etan jarri dabe. Kafea eta pastela barne, lau euro ordainduko dira.



# BERBAZ >

## “AHTaren proiektuaren kontrako herri mogimendua kriminalizatu gura dabe”

Audientzia Nazionalak AHTagaz lotutako kasuak atzera bota ditu. Onintze Oleagak gai horretan dihardu



### Onintze Oleaga •

#### Abokatua

- Urbinan atxilotutako en kasua daroa
- Atxondoko ezker abertzaleko zinegotzia da

**U**rbinan Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako manifestazioan atxilotu zituen zortzi lagunen auzian diharduen abokatu etako bat Onintze Oleaga atxondarra da.

*Urbinako kasuan, abokatuok atxilotuekin berba egiteko oztopoak izan zenez salatu dozue.*

Normalean atxilotuta bat gertatzen denean, familiakoek konfidantzazko abokatuarengana jotzen dabe. Atxilotuak ez dau zertan abokatuaz ezagutu, ez eta bere izen-abizenak be. Kasu horretan, familiak izendatuta komisaldegira konfidantzazko abokatu moduan hurreratu ginenean ez euskuen izaera hori onartu. Atxilotuak berak ez bagintuen izendatzen ez euskuela konfidantzazko abokatu legez jarduten itziko esan euskuen. Horrek atxilotua ofizioszko abokatu bat izendatzera behartzen dau. Inkomunikazino egoerarik ezarri ez bazen be, inkomunikatuta egon ziren.

*Audientzia Nazionalera eroaten saiatzea espero zenuen?*

Kasua behin epaitegietara heldu eta gero Audientzia Nazionalera bidaltzea gertatu izan da, baina, inoiz be ez Ertzaintzak zuzenean atestatua hara

bidalita. Manifestazino baten parte hartzearen guk ez genduen halakorik itxaroten.

*Egoera horren aurrean, zer irakurketa egiten dozu?*

Desobediencia zibileko ekin-tza bat ezelako ikerketarik egin barik Audientzia Nazionalera bidaltzea terrorismoa egotzita larrizat jotzen dot. Organo politiko batek eremu judizialean hartutako erabakia da. Argi ikusten da helburua herri mogimendu oso bat kriminalizatzea dela. Beste bide batek lortzen ez dabena, bide errepresibotik lortu gura dabe: herri mogimendua beldurrarazo eta isilarazotea.

*Urbinan atxilotutakoak aske itzi zitueen, baina prozedurak aurrera darrai. Zer egoeratan dagoz une honetan?*

Instrukzino fasean dagoz, eta akusazino egin ahal izateko edo prozesamendua artxibatze-ko ikerketekin dihardue. Fase hori amaitzean ikusiko dogu zer gertatzen den. Batzuk baldintzapean aske dagoz,

epaitegietara aurkeztu behar dira. Beste batzuk baldintza barik aske gelditu dira, baina karguekin.

*AHT Gelditu! Elkarlanak proiektu horren inguruan informazino falta dagoela kritikatu dau. Ados zagoz?*

Durango obrak zelari hasi diren ikusita, ezkutuan dabilzela emoten dau. Biribilgune bateko eraikuntza-lanak aprobetxatu ditue AHTaren lanei ekiteko. Obra bat hastean, finantziatze eta datu guztiekin kartela jartzea ohikoa izaten da, baina hemen ez dogu halakorik ikusi. Ez dogu ulertzen obrak zelari hasi ditueen gizarteak proiektu horren aurrean zalantza handiak daukazenean eta ez dauenean eritzi-rik emoteko bape aukerarik izan. Obren hasiera “antisoziala” izan da, gizartearen erabakiaren kontrako izan delako.

*Herritarrek erabakitzeko aukerarik ez dabela izan deritzozu, beraz.*

Edozein gaitan herriari hitza emotea oso positiboa da. Gaitxienean be bai. Herriak ez dau erabakia hauteskundeetan bakarrik hartu behar, pros-

“AHTaren aurka dagoen herri mogimendu oso beldurrarazo eta isilarazo gura dabe”

“Herritarren eritzia ezagutu barik hasi ditue obrak. Ikuspuntu horretatik, proiektu “antisoziala” da

“Edozein gairen gairean herriari hitza eta erabakia emotea oso positiboa da”

pektino parlamentario baten erabakia hartzeko. Hor ez da amaitzen demokrazia.

*Atxondoren kasuan, AHTaren gaineko galdeketa egin zenuen.*

Atxondon, Elorri eta beste hamar herritan galdeketa egin zen, eta beste leku batzuetan be gauza bera egitea bultzatu gura geunke.

*Galdeketa jasotako emaitzak ikusita, zer balorazino egingo zeunke?*

Herritarrek zenbat eta datu eta informazino gehiago eza-gutu, proiektu horren kontrako oposizino orduan eta indartsuagoa da. Pertsona batek egiazko informazino jasotzeko aukera badauka eta aldi berean erabakia hartzeko bidea emoten bajako, ildo politiko bateko zein bestekoa izan, proiektu horren kontrako erabakia hartuko dauela-koan nago. Politikariek be hausnarketa hori egin behar-ko leukie, zergaitik ez dauen herriak hitza eta erabakia har-tu behar. Proiektu horren sus-tatzaileak herriak erabakitako errespetatzera be bultzatu gura neukez.

▪ Jone Guenetxea



# EKONOMIA<sup>></sup>

> DURANGALDEA

## ELAk dino Durangaldeko egoera “gogorra” dela

‘Aberastasuna banatu’ lelopean kontzientziarazino kanpaina hasi dabe

Durangaldeko egoera “oso konplikatua” da: halaxe aitortu dau ELA sindikatuak *Aberastasuna banatu* lelopean abiatutako kanpaina aurkezteko egindako agerraldian. Euskal Herrian, proportzionalki, Durangaldea da enplegu erregulazino espediente gehien batzen dituen, nabarmendu dabenez: “Aldi baterako enplegu barik izteko espediente asko aurkeztu da, eta hasi dira behin betiko kaleratze espedienteak be. Behin-behineko oso langile gitxik dihardu, eta horrezaz gainera, kaleratzeak, soldata murrizketak... Iako beste hainbat neurri be hor dagoz”.

Durangaldea automozinogaz oso lotuta dagoen eskualdea izanik, eragina zuzena dela gogoratu dau ELAk, eta, azaldu dabenez, zerbitzuetako enpresei eragiten be hasi da. Oinarrian patro-

nala, banketxeak eta instituzinoak jo ditu “krisi ekonomiko eta sozial” honen “erantzule”, eta horreei erantzun gura deutse: “egiturazko neurriak (lan-taldeak murriztea, lan-eskubideak gitxitzea...) planteatzen dihardue, baina langarga berreskuratzean zein izango da langileen egoera?”.

Durangaldea da Euskal Herrian proportzionalki erregulazino espediente gehien daukazena

Durango manifestazinoak iragarri dau ELA sindikatuak maiatzerako

ELAk salatu dauenez, 1993tik 2008a arteko hazkunde ekonomikoan patronalaren eta banketxeen aldeko politikak garatu ditue botere publikoek; euren aldekoak izan dira erreforma fiskalak, pertsona fisikoek errentaren gaineko zerga zegoenean mantenduz. Madrilen adostutako itunek lan baldintzetan eragin dabela gogoratu dabe. “Orain, urteotan etekinak izan ditueenek langileak kaleratzen dihardue, erregulazino espedienteekin...”. Horren aurrean erantzun beharra dagoela dino ELAk.

Ekaina arteko kontzientziarazino eta mobilizazino kanpainaren bitartez botere publikoen jarduerari baldintzatu gura dabe. Ermuan delegatu asanblada eta manifestazinoak izango da hilaren 27an. Maiatzerako manifestazinoak iragarri dabe Durango. ■ A.B.



ELAk mobilizazinoak iragarri ditu, “botere publikoen jarduera baldintzatu” ahal izateko. A.B.

> ABADIÑO

## 211 lagunengan eragingo dauen erregulazino Rothembergerren

Rothemberger enpresak Abadiñon eta Gasteizen ditueen lantokietan dihardueen 211 langileengan eragingo dauen enplegu-erregulazino espediente eskatu dau, datozen sei hilean asteko egun bitan kontratua etetea planteatu dabe.

Denera, 283 beharginek dihardue Abadiñon (mekanizatu) eta Gasteizen (forja eta galdaketa), eta zuzendaritzak enplegu erregulazino eskatzeko “krisiaren eraginez salmentak %50 inguru jaitsi” direla arrazoitu dau. CCOOko proposatua espediente negoziatzea berretsi dau lan-taldeak, asanbladan. ELA, UGT eta USO be bat etorri dira.

Datozen sei hilean asteko egun bitan kontratua etetea planteatu dabe

“Langileei babes guztiak emongo deusaz akordioa” lortzeko aginduagaz doa negoziatzeaz Euskadiko CCOOko Minerometalurgia Federazinoak. Ildo horretan, “erregulazino espedientearen epe eta zifretan zorrotasuna” eskatuko deusie enpresari, eta langileen “soldata osatu daitezela, ekonomiko-galtzen irten ez daitezela”. Euskadiko enpresek azkenaldian Txinako hornitzaileei eskatutako lan-zama berreskuratze daie be eskatuko deusie zuzendaritzari, azaldu dabenez. ■ A.B.

Enplegu-erregulazino espediente negoziatzea onartu dabe langileek

■ kolaborazinoak



Aitor Iturriaga LAB sindikatuak

### Alarma gorrian

Abendu aldera idatzi nuen zutabearen artean egoera horren gordina ez zelarik, zakukada bat ERE, eta, etenik gabeko enplegu suntsiketa eta kaleratzeak iragarri nituen. Esan gabe doa, tamalez, betebeteen asmatu nuela. Jakina da “euria” ari duela nonahi, baina eskualde honetan gertatzen ari den enplegu birrinketak, asteak eta hilabeteak pasatu ahal bikoiztuko denak, ez du izenik. Badira zenbait aste, LABeko kideok alarma gorria piztua zegoela salatu genuela Durangoko kaleetan barrena. Lantokietako egoera kalera atera behar genuela uste genuen, erlaxatuegia (narkotizatuta, agian) antzematen genuen jendartea gainera zetorkigunaren aurrean, eta kalean erantzun sendoak eman beharra iradokitzen genuen, lantokietako arazoak plazaratu eta egoeraren gordintasuna azalratzea abiapuntutzat joz.

Enpresa gehienek krisi egoeran hilabete soil batzuk daramatzaten arren, berorren behin-behinekotasunaren aurrean erabaki estrukturalak hartu nahi dituzte. Arazoak tokian toki aztertu behar badira ere, orokorrean asko dira aukera galdu nahi ez-eta egoerari probetxua atera nahi diotenak. Agerian dago enpresako sorotik “belar txarrak” kentzeko eta “garbiketara” egiteko une aproposa izan daitekeela ohartu direla:

Aitzakia egokia, kaleratze merkea, beldurra neutralizatutako langileak... Horrek guztiak enpresarienetatik oldarkoragoa izango den bigarren fase baten aurrean aurkitu gaitezkeela ohartarazten digu, non kaleratze masiboak aurrekusi daitezkeen erantzun sendo bat eman ezean. Bihotz gabeko enpresari horien planetan, lana bueltatzean, gaur deuseztutako kalitatekoa eta egonkorra den enplegua egoera prekarioko eta ebentuala den enpleguak ordezkatuko du, azpi-kontratazioari eta aldi baterako lanerako enpresei parez pare atek zabalduz. Krisi hau eta gero, mundua ez omen da berdina izango. Ez dezatela, baina, enpresarienetatik moldatu, langileon neurriak baizik. Geure esku dago.

**MINKENDU**  
 MASAJEA, AKUPUNTURA  
 (orratz gabe ere) ETA  
 MINAREN AURKAKO  
 TERAPIAK

Alberto Murua  
 Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO  
 tf. 662 270 770

Ibaizabal, 3A behe, 1D  
 48200 Durango/ Bizkaia  
 T. 94 681 84 81  
 F. 94 681 84 91  
 M. 600 267 373

**a-metz**  
 [barne]diseinua

Diseinua  
 Dekorazioa  
 Ideiak  
 Proiektuak - 3D  
 Legalizazioak  
 Erreformak  
 Gremioen koordinazioa  
 Obra berriak  
 Altzariak  
 Osagarriak

www.a-metz.com



## KULTURA &gt;



DANTZA &gt; LEHIAKETA

# Breathless taldeko nafarrak garaile Aka Dantz sariketan

**L**ehenengo edizioa izateko, aurreikusten zutena baino arrakastatsuagoa izan da asteburuan Arriolan jokatu den Aka Dantz dantza lehiaketa, antolatzaileek diotenez. Lehiaketan parte hartu duten dantzarien mailagatik eta eskualdetik zein beste hainbat lekutatik hurreratu den ikusle kopuruagatik.

Epaimahaiak zail izan eizuen zapatuan sariak erabakitzea, oso koreografia landuak aurkeztu baitzituzten Arriolako lehiaketan parte hartu zuten zortzi taldeek. Bilbo, Irun, Zaragoza, Iruña eta Basauriko taldeak izan ziren Eloorrioko Aka Dantzeko lehenengo edizioko parte-hartzaileak.

Talde gondidatu baten erakustaldia ere izan zen, eta jaialdian irabazle Iruñeko Breathless izan zen; 500 euro jaso zituen. Bigarren saria Irungo Irunbreak taldearen eta Zaragozako Next Level taldeen artean banatu zuten, talde bien arteko berdinketa eman baitzuen epaimahaiaren puntuaketa. Bilbotarrak izan ziren hirugarren sari-tuak: Fusion taldekoak.

Kaleko dantzen askotariko estiloen isla izan zen koreografiaren kalitateagatik nabarmendu den lehiaketa. Aka Dantzen irabazle izan den Breathless taldeak ere parte hartuko duen maiatzaren 2ko La Casillako BreakOnStage lehiaketa izango da kale dantzen hurrengo bilgunea. ■ I.E.

## 12 > Poesia eguneko errezitaldia

Zapatuan da Poesiaren Nazioarteko Eguna, eta Abadiñoako zenbait poetak errezitaldia eskainiko du Errotan. Gitarra lagun irakurriko dituzte olerkiak.



## 13 > Lipus 'Putzuak lehortzen'

Martxoaren 27an, bizileku duen herrian izango du Ander Lipus antzezleak *Putzuak lehortzen* lanaren emanaldia: Berrizko kultur etxean.



POESIA > ERREZITALDIA

# Martxoaren 21a, Abadiñoko eta nazioarteko poesiaren eguna

Zapatuan da aurten Poesiaren nazioarteko eguna eta errezitaldia eskainiko dute Errotan

**K**untur musikariaren gitarraren akorde eta doinuen laguntasuna izango dute martxoaren 21eko errezitaldian Vicente Moreno, Peru Magdalena, Barbara Vera eta Usansoloko Marian Alvarez poeten ahotsek.

Zapatuan, bihar, 19:00etan hasita, poesia errezitaldia antolatu dute poesiaren nazioarteko egunaren aitzakian. Zapatua izateak aukeran utzita, egun horretarako bereziki prestatutakoa da errezitaldia. Bakoitzak berak sortutako olerkiak irakurriko ditu.

Abenduan ere leku berean batu ziren hitzen ingurura liburu bi argitaratuak dituen Peru Magdalena, Barbara Vera eta Vicente Moreno. Poesiaren egunerako berritasuna direnak, horiei gehitu zaizkien Marian Alvarez poeta eta Egoitz Etxebarria "Kuntur" gitarra jotzaile durangarra dira.

Ordu eta erdi inguruko emanaldia prestatu dute, poesia irakurria eta gitarraren doinua uztartuko dituen. Poesia liburuak irakurtzeko ohitura duen eta ez duen jendea ere batzen dute, Vicente Morenok Udaleko Kultura Sailaren bultzadarekin urtero antolatzen dituzten errezitaldietan.

Lau poeta eta gitarra jotzaile batek osatuko dute emanaldi berezia

Herriko Kultura Saileko arduradunen laguntzarekin, Vicente Moreno antolatzaileak azpimarratu eta eskertu gura izan duenez, ohitura bilakatu da urteotan Durangaldeko eta Bizkaiko poeten errezitaldiak antolatzea urteko hainbat sasotan.

Antolatzailearen berbetan, kaleko jendeak eskatzen du poesia errezitaldiak antolatzea urtero, eta poesia liburu bat hartu edo erosteko ohiturarik izan ez arren, herritarrek gogoko dute poetak idatzitako berbak ozen irakurtzen entzutea errezitaldian.

Orain urte bi inguru eskolameentzako gitarra lagunduta Vicente Moreno poeta abadiñarrak egiten zuena eredu hartuta batu dituzte berbak eta musika martxoaren 21eko doako emanaldira: doako gonbidapen bidezko sarrera izango du biharko ekitaldiak; Errota kultur etxean bertan eskuragai izango dituzue errezitaldirako gonbidapenak.

Denetariko gaien inguruan sortutako berbak izango dira Errotako emanaldian: Morenok maitasunaz idatzitakoak, edo Barbara Verak Argentinari buruz idatzitakoak, kasurako. ■ I.E.

Vicente Moreno abadiñarrak antolatu du errezitaldia

Ordu eta erdiko errezitaldia izango da Errota kultur etxean

Askotariko gaien inguruko poemak irakurriko dituzte

## GEURE DURANGALDEA



Asier Iturriaga Platerueneko programatzailea

Nire debutean zeri buruz idatzi pentsetan nengoala, antzoki aurrean ezagun batek haxe galdetu eustan zapatuan: "Oye Txiki. El antzoki ha cambiau de dueños, no?..." Zuretalurutzin duentipoaketa aurreko ugazabak zeintzuk ziran eta barriak nortzuk ete diran galdetzean, erantzuna: "Antes los del antzoki de Bilbao y ahora el Ayunta (Durangoko udala), no?..." Informazio iturriakaldatzeko esan eta gure barri emon neutson:

- Bilboko kafe antzokiko kideak lagun handiak doguzala, baina ez dogula sekula lotura organikorik izan. Ondarroa eta Bilboko antzokien jabeak direla.

- Plateruena Kooperatiba elkartea dala eta bere jabeak 900 akziodun inguru direla, gehienak akziodun txikiak eta akziodun nagusia Berbaro elkartea.

- Gure jarduera herriaren mesederako egiten dogula, horren adierazle kultur eskaintza anitza: kontzertuak, bertso saioak, dantza ikuskizunak, zinea euskaraz, antzerkia, umeentzako aisialdia... urtean 160 kultur ekitalditik gora eta ia erdiak doakoak.

- Inbertsino osoa Plateruenean ordaindu ebala oso-osorik (oraindik ordaintzen gabilz) eta honek arazo ekonomiko larriak sortzen deuskuzala, kontuan izanda 18 urtetan 1,5 milio euro amortizatu behar doguzela.

- Antzokia aurrera badoa, bertan jo eta su lanean gogor ari dirazan langile eta laguntzaile (militanteak) taldeagatik dala, batez be, eta zelan ez kafe bat hartuz, bazkalduz, trago bat hartuz zein kultur ekitaldietan parte hartuz proiektuari sostengua emoten deuseen milaka laguni esker.

- Beste edozein kultur elkarterek bezala diru-laguntzak jasotzen doguz, baina gure aurrekontu osoaren %7ra ez direla heltzen. "Jodé, eso mismo les decía yo..." esanda gurtun induen morroiak.



Iban Gorriti

## PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MARTXOAK 21 22:00etan  
VOMITO + NEVER SURRENDER  
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10 euro.

MARTXOAK 26 20:00etan  
EMAKUMEAK LARRU GORRITAN  
SUA antzerki taldea  
ANTZERKIA. Sarrera doan.

MARTXOAK 27 21:30ean  
KORRIKA AFARIA + ERROMERIA AIKO TALDEAREKIN  
AFARIA + ERROMERIA. Afaria: 18 euro.

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Bahman Ghobadi. Iran, 2006

Zine emanaldia uztartuz elkartearekin

**MEDIA LUNA**

Martxoak 27 ostirala 19:30ean

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

11:94 601 07 76 Irtekalde, 11 Durango

**HITZ**

Liburudenda

ANTZERKIA > ELKARRIZKETA

# “Pertsonaia hauek antzezten hainbeste urte daroat ze, eurekin inprobisatzeko gai naz orain”

Berrizen –herri “aspergarria” dela dinosku– bizi da **Ander Lipus** markinarra, eta bertan eskainiko dau *Putzuak lehortzen* antzezlan martxoaren 27an. Aspertzeko denpora larregirik ezin dau izan baina Lipusek, aitatu deuskuzen beste proiektutan ibilita...



Judit Fernandez

## Zelan ailegatu zara ‘Putzuak Lehortzen’ obrara?

Maite Agirreren lana ezagutu gura neban, batez be, bere lehenengo etapako obra edo saio esperimentalak interesgarriak iruditzen jatazelako. Bestalde, emakumeekin lan egin ahal izatea be interesgarria iruditu jat; Garbi Losada zuzendariagaz.

## Eta zelako obra da ‘Putzuak’?

Nabari da Garbi Losadaren ikutua: ez da obra gogorra, nahiko obra komertziala da. Urte bete daroagu erakusten, hainbat emonaldi egin dogu eta gehiago be badaukaguz lotuta.

## Jenteak zelan hartu dau?

Maitasunaren ikuspuntua halakoa daukan jente askorengana ailegatzeko den obra da. Nire lehenengo esaldia obran “non-bait, sexua eta beldurraren artean pasioa dago” da. Jente bati halako gauzak heldu egiten jakoz... Nik bihotza konjela-tua daukat maitasunari jago-konez, eta ez dot ezer jakin gura.

## Maitasuna eta bizitzari buruzko lana dela esaten da...

Bai, eta egia da. Maitasuna antzerkian ikutzea berez oso

gatxa da. Obrak badaukaz bikote batean oso ohikoak diren eztabaidak; maitaleen ingurukoak... 18 urte elkarregaz egon eta gero, hartu-emonai iztea erabakitzen dau neskak. Ramon eta Ramona dira pertsonaiak.

“Maitasunaren gaia antzerkian jorratzea ez da bape ohikoa”

“Nire konpainia propioagaz obrak sortzea dot helburu”

## Antzezle moduan, zer emoten deuszu proiektu honek?

Obra bat egitean, gauza oso inportantea dalan taldea humanoa osatzea, eta elkarregaz hartu-emon ona izatea. Oso mundu ezbardinak dira antzerki obra hau eta telebistan egiten dihardudan *Martina*, esaterako.

## Zelakoa da lan prozesua?

Bere garaian egin genduzen entseguak, estreinaldia egin genduen, eta orain emanaldia dogun egunean ordu bi lehena-go egiten dogu pase bat, ‘italiana’ deitzen dena; espazio bako-txa ezberdina da, eta, moldatu egin behar izaten dogu, testua gogora ekarri... Berrizen, eszenografia guztia sartuko den ez dakit: espazio txikiagoa izango da, eta moldatu egin beharko da.

## Buruan hainbat proiektu daroazu...

Korrika Kulturalagaz *Erregea eta Bufoia* egiten dihardut orain: inprobisatu egiten dot dena. Gai-jartzaileak emoten deusku gaia, eta bakotxean Egaña, Lujanbio, Maia edo Iturriagaz, inprobisatu egiten dot pertsonaiagaz. Zelanbait esateko, “piztu egiten nabe” emonaldiok: oso urduri egoten naz, eta oso kontzentratuta be bai.

## Zeuregaoa da proiektu hori?

Bai, baina batak ez dau bestea kentzen: azken batean zure estetikaren barruan ez dagoen gauzak egiten ikasten dozu, eta hortik be ekarpenak jasotzen dozuz. Positiboa da. Jenteari normala

nazela erakusteko modua be bada: korbata eta trajedun tipo bat antzezteko gai nazela.

## Noiz hasi zinen zure estetika hori garatzen?

Madri-dik etorri nintzenez; Ander Lipus ezizena ipini nebanean. Ordu-tik saiatzen naz lan horreetatik bizitzen, eta beste talde batzuekin noizean behin egin ditudan lanekin uztartzen. Hiru bakarriketa prestatu nituen Madri-dik etorri nintzenez, eta Antzerkiola Imaginarioa sortu. Asmoa konpainia propioa edukitzea zen, eta une honetan nire konpainiagaz beste lan bat prestatzen dihardut...

## Zein izango da lan hori?

*Babilonia koloreak* deitzen da, eta urrian estreinatuko dogu. Hiru urte daroat hori prestatzen. Nire amonaren pertsonaia egingo dot: tristeziaz hil zen amonarena. Nire kontatzeko modua, nire zigilua daroa obrak: tabuz betetako herri batean, amama batek bizi dauen egoera eta bere heriotza kontatzen ditut. Tekno kontzertu bat emotera bueltatzen da bere biloba, eta tradizioa eta abangoardiari buruz dihardut. Gogoan dot

nire amonaren gela ikusi nebanean zer itzi eban mundu honetan: Jesukristoren kurutze bat, Sabino Aranaren argazki bat eta bere arropa, ez besterik. Guk gure mp3a, kotxea...

## Jenteak umoreagaz lotzen zaitu, baina, gehiago...

Orain bai, orain bi-hiru urte bertso-tranpak egiten hasi nintzelako. Ordura arte tragediak egin izan ditut. Gauza asko umore-eroan ditudalako egin naz ezagunagoa, baina bertso-tranpetan egiten ditudan nire bizitzan zehar egin ditudan pertsonaiak dira. Adibidez, Ignacius Mozkorra, *Ardoaz* obrako pertsonaia bat da. Hainbeste urte daroat pertsonaiok egiten ze, inprobisatzeko gaitasuna garatu dot jada.

“Iparraldean badago antzerkiagazko maitasuna”

“Antzerkian, tragediarako joera handia izan dot beti”

## Berrizko jai batzuetan bazkalostea girotu zenduen...

Bai, hemen egon nintzen Manex Dominitxinegaz... eta Juan Jundagaz be bai: potopsikotiko-depresiboagaz. Izatez, Txaloga-egin neban obra bateko pertsonaiatik ateratakoa da: obra haretako kodigoak euskaldundu eta behin poto egin ebalako sindrome hori daukan Juan Junda pertsonaia sortu neban.

## Tragedia alboratua dozu?

*Putzuak Lehortzen* bera melodrama bat da, *Babilonia koloreak* dakit zer izango den, baina egia da teatroa egiterakoan beti izan dodala bizitzagazko trazedentzia bat. Euskal Herriko egoera ikusita, tragediarako joera izan dot beti. Umoreagaz hasi nintzen egun batean, eta oso ondo pasatzen dot: barrutik neu be barrez lehertzen egoten naz askotan.

## Eta ‘Ibañeta’?

Obra horregaz oso kontentu geratu nintzen. Asteburu honetan Urdiñarben eta Miarritzen daukaguz emanaldiak. Behe Nafarroako 18 lagun dira aktoreak, amateurak. Han maitasun bat dago antzerkiagazko.

## Antzerki munduan bizirautea ez dela erraza dinozu hemen, zein da irtenbidea?

Frantziara exiliatzea! Han paroa kobratu leiteke behintzat: gure ofizioak badauka duintasun bat han, baina hemen artista eta toreroen atalean gagoz! ■ I.E.



LITERATURA > LEHIAKETA

## Globalkultura lehiaketako lehenengo saria, bigarrenenez, Mikel Azkarragari

'Kanterako harria baino gogorragoa' izeneko ipuinarekin irabazi du Abadiñoko Mikel Azkarragak, bigarren aldiz, Globalkultura elkarteak antolatzen duen lehiaketako euskarazko modalitateko lehenengo saria

Kontaketa laburraren 'Memoria-  
ren sareak' sariketara aurkeztu  
diren lanen artean, euskarazko  
modalitatean epaimahaiak onena  
iritzi dion lana izan da Mikel Azka-  
rraga abadiñarrak idatzitakoa.  
Lanaren argitalpena eta 1.250 euro  
dira sari lez jaso dituenak.

Azaroan aurkeztu zuen  
ipuina lehiaketara, eta  
lehenengo saria jaso

Azaroan aurkeztu zuen Mikel  
Azkarragak ipuin laburra joanda-  
ko gizarteko ohiturak mantentze-  
ko helburuz martxan ipinitako  
lehiaketara: harrobietako lanaren  
inguruan osatu du oraingoan  
Azkarragak lana, iaz artzainen  
inguruan aritu eta gero.

Ipuina idatzi aurretiko doku-  
mentazio lana, gaztetan harro-  
bian lan egin zuen aitarekin izan-  
dako elkarrizketetan oinarritu du  
Mikelek. Ipuina idazteari ekitean  
sortutako zalantzak eta galderak  
argitzeko, aita izan du informazio  
iturri eta lanaren oinarri.

### Harremani buruz

Argazki zahar batek eramaten du  
istorioa herriko harrobietara, eta  
ipuinaren irakurlea harginek egi-  
ten zuten lanera gerturatzeraz.  
Argazki zaharra aitita eta amama-  
ren etxean topatzen duen Aintza-  
nek aititaren ahotik jasotzen duen  
eran ezagutuko du irakurleak ere  
harrobietako bizimodua ere.

Herriko harrobian lanean has-  
ten den mutil gaztea da ipuinean  
protagonista, eta harrobian lagun  
duen Juanito, "kanterako harria  
baino gogorragoa" dena.

Frontoia eta bolatokia dituen  
eta herritarrek eraikitzen duten  
auzo-eskola ere baduen auzo  
baten kokatu du Azkarragak ipui-  
na. Harrobian lanean hasten den  
gaztearen eta lankidearen, eta aiti-  
ta eta bilobaren arteko harrema-  
nakontatzen du *Kanterako harria  
baino gogorragoa* ipuinak. ■ I.E.

Aita izan du ipuina  
idazteko informazio  
iturri Azkarragak

Harrobian lan egiten  
duen 13 urteko mutil  
baten istorioa da



ZINEMA > EMANALDIA

## Ilargierdia, kurduen errealitatearen ispilu

Uztartuz elkarteak antolatuta, San Agustin kulturgunean dira hileroko film emanaldiak

*La Boda de Tuya* eman zuten joan  
zen urtarrilean Uztartuz elkarteak  
antolatutako zine emanaldien  
artean lehenengo, eta *Las muje-  
res de verdad tienen curvas* otsai-  
lean. Martxoaren 27rako, Bahman  
Ghobadiren *Media Luna* pelikula  
emango dute, 19:30ean.

2004 urtean *Las tortugas tam-  
bien vuelan* film saritua zuzendu  
zuen Bahman Ghobadi irandarraren  
hirugarren lana da martxoaren  
27an Durangon ikusgai dugun  
*Media Luna* filma.

Filmaren izenburuan bertan  
islatzen denez, Kurdistan herrial-  
deak duen alde begibistakoenari  
eta ezkutuko enari egiten dio erre-  
ferentzia pelikulak, jatorrian kur-  
duerazko "Niwemang" izenburua  
daraman filmean.

Irakeko Kurdistanen kontzer-  
tu bat eskaintzera joateko baime-  
na lortu duen Mamo musikari  
zaharraren abentura eta istorioa-

ren bitartez herrialde hartako per-  
sona batzuen bizimodua erakus-  
ten du *Media Lunak*.

Beste musikari batzuekin  
erbesteratuta bizi den Hesho ema-  
kumearen bila ere abiatuko da  
Mamo, berarekin kantatu dezan,  
eta hainbat abentura igaroko  
dituzte bide horretan. ■ I.E.

Bahman Ghobadi  
zuzendari irandarraren  
lana da 'Media Luna'

Mamo musikari  
zaharraren abentura  
kontakten du filmak



ANTZERKIA > EMANALDIA

## Dentistaren bisita jasoko du Transilvaniko Drakula kondeak

Arriolan izango da martxoaren 27an, eta San Agustinen martxoaren 29an



Pentsarazi egiten duen obra horie-  
tako batekin izan zen lehenago  
ere Durangon Portugalgo Com-  
panhia do Chapito, *El gran crea-  
dor*ekin. Erlijioaren inguruko  
satira zen hura, Bibliaren irakur-  
keta umoretsu eta burutsua.  
Oraingoan, *Drakula* kondearen  
istorioaren moldaketa bat da  
Durangaldera dakartena. Ordu-  
ko hartan bezala, honetan ere  
gidoiak duen parodia ukitua eta  
aktoreen primerako lana dira  
obraren indargune nagusiak.

Londreseko dentista ezagun  
bat kondearen Transilvaniako  
gaztelura joateko deitzen dute  
Chapito taldearen *Drakula* bere-  
zi honetan, eta protagonista, kon-  
dea bera baino, aipatutako den-

Aktoreen lan bikaina da  
Drakula obraren  
indargune nagusia

tista da. Haginak ez baititu lan  
honetako kondeak batere osasun-  
tsu: gingivitis eta hats nazkaga-  
rria ditu, besteak beste.

Lisboako Sao Jorge gaztelua-  
ren inguruetatik datorren taldea,  
pertsonea literario ezagunaren  
parodia egitera etorriko da Duran-  
galdera; martxoaren 27an Elorrio-  
ko Arriolar eta 29an Durangoko  
San Agustiner. Jorge Cruz, Jose  
Carlos Garcia eta Tiago Viegas dira  
aktoreak, eta John Mowat ingele-  
sa zuzendaria. ■ I.E.



# "PLAN PREVER-A" BUELTAN DA



GAURSA-n besterik ez

## 500€-ko

deskontua aukerako  
autoetan eta  
ia berrietan.\*

\* Auto ia berria edo aukerakoa eroslerakoan, 10 urte baino gehiagoko autoa utzita, balio duen promozioa Apirilaren 30a arte egindako erosketetan.

## RENAULT OCASIÓN

**GAURSA AUTOAK**  
ARRIANDI, 12 IURRETA TELF. 94 620 33 00 [www.gaursa.com](http://www.gaursa.com)



# EZ GALDU MINUTURIKI!

## KARROZERIA ERAGIKETA

# FRANKIZIA DOHAINIK

## KARROZERIA KONPONKETETAN

Ekainak 30a arte

Frankizia onartzen duen karrozeri konponketela, zure esanetan, eragiketa egiteko, jarduera honetarako 500€ gutxienez inbertituz 1,200€ inbertituz onartzen da. 00/06/00-en ardatzaren azpean.

## RENAULT SERVICIOS

**GAURSA AUTOAK**  
ARRIANDI, 12 IURRETA TELF. 94 620 33 00 [www.gaursa.com](http://www.gaursa.com)





# Erraketariak: ahazturatik omenera pasatutako historia



Kepa Aginako

‘Erraketistak’ izeneko erakusketa Durangoko Arte eta Historia Museoan dago ikusgai, martxoaren 29a arte. Javier Sagastizabal durangarrak eta Jose Maria Urrutiak osatutako lan honetan emakume erraketarien historia berpiztu dabe. Martxoaren 8aren harira omenduak izan ziren kirolari honeek, nahiz eta azken urteetan gehienentzat ahaztura egon diren.

**K**irok ezaguna da pilota Euskal Herrian, batez be eskuko modalitatean. Gure kulturagaz estuki loturiko kirol honetan Olaizola, Martinez de Irujo eta Barriola dira, esaterako, jarraitzaileen begien jomuga. Baina esku-pilotaren gerizpean, badira beste hainbat jokamolde: pala, zesta, erremontea... Modalitate bako txak bere sasoi onak eta txarrak izan ditu, eta horren adibide argiena erraketarena da: emakumeak protagonistatzat zeukazen kirol hau, urrezko garaietatik desagertzera igaro zen denpora gitxian. Jarrera eta erabaki matxistak izan ziren erantzule nagusi.

Kirol profesional horren lehenengo pilotakadak 1917an emon ziren, Madrilgo frontoi batean.

**Kirol profesional honen lehenengo pilotakadak 1917an emon ziren, Madrilgo frontoi batean**

Erraketa normala eta teniseko pilotekin, frontoi laburrean jokatzen eben kirol honen aitzindariak. Ezzen, baina, jardura arin edo bizia, materialak baldintzatzen ebalako.

Ildefonso Anabitarte puntista ohiak, kirol honen aldeko apustua egin eban, eta aldaketa batzuk egin eutsazen. Larruzko pilotak atera zituen, zesta edo palan legez; ondorioz, erraketak be indartu ziren, batez be, sokaterian. Emondako pausu honegatik, Anabitarte Erraketaren sortzailea izan zela esaten da. Madrilgo Moderno izeneko frontoiko enpresaburua zen gipuzkoarra, eta 1919an etorri zen aldaketa bere eskutik.

Anabitarteri ezin hobeto atarajakon jokaldia. Espainiar esta-

tuan izandako arrakastaz gainera, kirol honek Hego Amerikan be oihartzuna izan eban, modalitatearen zabalpena ekarriz. Kuba, Mexiko eta inguruko pilotalekue-tan interesa piztu eta, urte biren buruan, hainbat eta hainbat izan ziren itsasoa zeharkatu eben erraketariak.

## Urrezko garaiak

Amerikako irekiera garrantzitsuenetakoa Habana-Madrid frontoiarena izan zen. Jokaleku ikusgarria zen, 1.800 ikuslerentzako egina, eta arrakasta izateko ahalegin handia egin eben Madrilgo zein Kubako enpresariak. Ondorioz, hemendik makina bat erraketari joan zen bertara. 1922ko urriaren 13an inauguratu zen frontoia. Ekitaldi horretan Kubako ereserki nazionala eta *Gernikako Arbola* abestu zituen. Lolina, Josefina Otaola eta “Eibarresa” ziren kantxa hartako erregina edo izarrak. Arrakasta itzela izan eben erraketariak Amerikan, eta jaialdi normaletaz aparte jente konkretu batek euren ikuskizunak eskatzen

zituena pribatuan. Sagastizabalek kontatu deuskunez, Cantinflas aktore ezaguna be erraketaren zaletua zen oso.

Ildefonso Anabitarte ez zegoen Habana-Madriden bultzatzaileen artean, baina bertan egon zen bolada batez. Frontoi horrek liluratuta itzi eban, eta Madrilera bueltatzean pilotaren historian esangura handia izango eban pilotalekua sortzea erabaki eban: Fronton Madrid, hain zuzen be. Erraketaren “katedrala” lehenengo Moderno zenaren toki berean altxatu eban, 1929ko ekainaren 5ean inauguratuz.

Modan ipini zen kirol hau denpora gitxian, eta frontoiak zabaldu ziren han eta hemen: Sol

**Hainbat eta hainbat izan ziren itsasoa zeharkatu eben erraketariak**



# Jatorria MODA



udaberria - uda



# ZER GURRA



# hura aurkitu

**B**esteak beste, jaka luze eta estuak, laburrak edo bolero txikietan moztuak dira udabarri-uda honetako joerak. Horrez gainera, larrosa kolore leuneko edo karratu zuri-beltzeko modelo laburrak be erabiltzeko dira. Soinekoei jagokenez, barriz, klasiko solteetatik hasi eta puntuzko soineko motz eta "lotsabakoak" ikuste-ko aukera be izango dogu aurten.

**Mota eta kolore guztietako arropak aurkitu ahal izango dira aurtengo udabarri-udarako**

Era berean, kasakazko soinekoak, jantzi dotore konbinatuak eta mota zein estilo askotako praktikak be puri-purian egongo dira 2009an.

### Elastikoak

Igaz modan jarri eta gero, aurten be elastikoek euren lekua izango dabe erakustokietan. Aurten, baina, alde opaku eta gardena horizontalean dator; horregaz batera, hainbat

modeloren azpialde gardena elastikoa moztuta dagoela irudikatzen dau.

### Tximeletak protagonista

Tximeleten irudiak izango dira datorren udabarri-uda honetan jaun eta jabe jantzietan, 2008an arrakasta izan eben izarrei lekua hartuz. Femeni-

noa eta era berean berrikuntzaren irudi, berpiztearen sinbolo eta bizitzaren iragankortasunaren ikur, tximeleta da aurtengo protagonista, kasurik gehiengotan topetan eta blusetan estapanpata, janzkerari ukitu dotore bat emanez.

**Tximeleta irudiko estapanpata sarri aurkituko ditugu aurten blusetan eta topetan, soinekoari ikutu femeninoa emonez**

tzat hartzen dogunean kolore apal, femenino, fresko edo sutsuetan pentsatzen dogu, udan natura bera be kolorez janzten da-eta. Halan be, joera horreez gai-

**Estilo erromatar eta greziarreko soinekoe be gaurkotasun osoa izaten jarraitzen dabe**

nera, kolore grisez, zuriz eta beltzez osatutako arropak be agertuko dira aurten. Ez hori bakarrik, karratudun soinekoe, zenbait kolore metalikok eta gardentasunek be lekua izango dabe 2009. urte honetan.

### Asimetria

Hain mesedegarri diren asimetriak gogor datoz oraingoan be. Topak zein sorbalde-tako bat agerian izten daben soinekoak limurtzaile eta erakargarri izatera heldu leitekez.

Era berean, estilo erromatar eta greziarreko soinekoak be gaurkotasun osoa izaten jarraitzen dabe, bai soineko luzeetan, bai jantzi motzetan be.

Linozko tela leunek udako egun beroei aurre egiten lagunduko deuskue.

Konturatu orduko gainean dogu udabarria, eta, beraz, etxeko armairuak arropa arinagoz janzteko sasoia be heltzear dago. Aurten, gainera, aitzatekoa da inork ez dauela atxakiarik izango janzkera ez aldatzeko, mota eta kolore guztietako arropak aurkitu ahal izango dira eta dendetan.



boutique LUISA

Iturriza 8 berriz  
Tel.: 946824112

### Paleta bete kolore

Edozein margolarik gurako leuke bere esku artean aurten ikusgai izango dogun kolore aniztasuna. Esaterako, sarri ikusiko dira horia lako kolore distiratsuak; beti be, zuria edo urdina lako kolore argiekin nahasturik. Joera horrek iradokitzen dauen legez, udabarria ain-






# Seriotasuna eta informaltasuna, txanpon beraren alde biak

## Informaltasuna

Gorbatez eta jantzeko alkandorez gainera, informaltasuna asko zainduko da aurten, konbinazino harrigarri eta sentsazino andana irudikatzen dabene koloreekin. Adibidez, neguko jantziek markatzen dabene estiloa baino informalagoak diren udako traje ugari ikusi ahal izango da erakusleihatetan, baina, halan be, ez deustie euren ukitu eleganteari itziko.



Deigarria den beste ataletako bat, txapin edo pitilloak izan barik, hankei itsatsita doazen prakak eta praka motzeko trajeak dira, udabarri-uda honetako joera aske eta informala agerian geratuz.

**Informaltasuna asko zainduko da aurten, konbinazino harrigarri eta sentsazino andana irudikatzen dabene koloreekin**

Beste joeretako bat hainbat koloretako jaka eta jantzeko prakene arteko konjuntua da. Bai ausartenek bakarrik aukeratu daben urdin argi eta deigarri batetan, bai zuri lauan. Gainera, ohikoa denez, beltza be ezin zeitekeen falta aurtengoan oso doitu eta ukitu gitxiagotzat datozen jakatan.

## Sportean motza


Minishortak ohore egingo deusto aurten bere izenari, gizonetzkoen kasuan inoiz baino laburrago dator-eta. Shortak lore estanpatuko jaka zuriekin helduko dira, zapatilekin bat datozen gris tonuko txanoekin batera. Sport jantzita joateko, ezin hobeto.

Diseinu ilunagoa gura bada, kolore beltza eta larruzko jaka dira aukera nagusiak; pitillozko praka oso estuak, itxurari egoki joakozen oinetako ilunak eta gainerakoetatik bereizteko kolore deigarriak kamiseta konbinatuz. Jaketako estanpatuen aldeko joera be agertuko da udabarri honetan, baina, betiko estanpatu motozale itsusietan jausi barik.

**Hankei itsatsitako prakak eta praka motzeko trajeak izango dira aurtengo berrikuntzarik deigarrienetakoak**

## Osagarriak

Bestalde, azkenengo urteetan osagarriek be geroago eta leku gehiago hartzen dabe gizonengan, eta 2009. urteak be ildo beretik jarraituko dau. Ohiko txapelez gainera, gerrikoak eta zapatak be garrantzia handiagoa hartzen dabilz urtetik urtera, geroago eta joera sofistikatuagoa eurenganatu.



Emakumezkoen arropetan gertatzen den moduan, gizonetzkoek be non aukeratu zabala izango dabe aurtengo udabarrian. Eguraldi onak dakarren askatasun gogoak informaltasunari lekua itziko deusto, baina seriotasuna ez da erabat alboratuko.

**GARCIA ARIÑO**  
**KIROLAK**



San Inazio Auzunea 4A  
Tel.: 94 681 77 55  
DURANGO



# Arropa koloretsuak easy chic estiloagaz



**M**odan dagozen jantziak ezagutu eta aukera ona egitea ez denez erraza izaten, gazteen artean nagusituko diren joerak azalduko deusueguz. Gustu guztiak asetzeko moduko eskaintza izango dogu, bakoitza bere estiloaren barruan eroso sentitu daiten.

## Praka nasaiaik

Emakumeen modan praka pirata nasaiaik nagusituko dira, kolore guztiei ateak zabalduz. Kontraste eta "gehiegikeriaz" betetako prakek kolore biziak onartuko ditue. Jantzera horri laguntzeko, tirante finak ditueen kamiseta minimalistak emakumeen artean moda-modan jarriko dira. Zuri eta beltzaren kontrastea klasiko bilakatuko da.

Lore biziz betetako arropak emakumeei freskotasuna emongo deutse. Lore eta marrazkiz zipritindutako soineko luzeek konplexurik bako eskoteak izango ditue.

Easy chic estiloaren jarraitzaileek udako beroari aurre egiteko kamiseta eta blusa erosoak jantzteko aukera izango dabe. Iluntzetan, puntuzko jertse finak linozko arropen osagarri izango dira.

Udabarri-uda sasoiko gauetan, kolore beltza eta zuria izango dira protagonistak. Korte klasiko-dun arropa luzeak takoidun sandaliekkin uztartuko dira.

**Kontraste eta "gehiegikeriaz" betetako prakek kolore biziak onartuko ditue**



Udaberriak kolore eztanda eragingo dau. Neguko kolore ilun eta hotzek eguzki izpiei lekua egingo deutsee. Larrosa, berdea, urdina eta gorria... dira udabarri eta udako modan nabarmenduko diren koloreak.



## Marrazki koloretsuak

Gizonen modari jagokonez, poltsikoz betetako praka piratak eta kirol-jertseak nonahi aurkituko doguz. Jantzi eroso eta zabalak beroa, ez daiten oztopo izan. Kamisetetan marrazki handi eta koloretsuek udabarria heldu dela iragarriko deuskue.

**Poltsikoz betetako praka piratak eta kirol-jertseak nonahi aurkituko doguz**

Galtza bakero finek sandaliekkin bat egingo dabe. Ausartenek marra eta koadrodun praka eta alkondarak eskuragarri izango ditue. Gauetarako gizonen arropan kolore zuria izango da nagusi.



**GOBELAS**  
-gazte moda-

Txinuri soto 10. behea  
Tel.: 94 681 44 06  
ABADINO



# Txikienek eroso jolastu daien



**T**ankera guztietako materialekin eginiko jantziak ikusiko doguz gaztetxo-en soinean, baina udako tenperaturei aurre egingo deutesen freskura eta etxeko txikieneen adinari jagokon askatasuna ardatz izanik; kontuan hartu behar daturrek sasoi honetan askatzen dabela indar eta energia gehien.

**Kolore askotako lorez zein hosto berdez lagunduriko zeta lurrunkorrek modan jarriko dira**

sargak eta seersuckersak be garrantzia izango dabe. Modu horretara gazteen janzkeran oreka eta funtzionaltasuna lortu gura da. Horrekin batera, diseinu bakuneko grafikoak nagusituko dira udadabarri honetan. Blusak eta topak prakaluze eta piratekin konbinatuko dira, eta aitaturiko topak sarri ikusiko doguz marrekin elkarturik.

## Oreka eta funtzionaltasuna

Alde batetik, maiz ikusi ahal izango dira kotoizko batista arineko jantziak, eta kolore askotako lorez zein hosto berdez lagunduriko zeta lurrunkorrek. Kotoiaz gainera, lihoak,

**Blusak eta topak, mota guztietako prakaluze eta piratekin konbinatuko dira aurtengo udan**

## Aisialdia eta jolasak

Azken batean, kirol giroetara, aisialdira eta joko lehiakorretara egokitutako janzkera da etxeko gazteenek udan beharizaten dabilena. Jolasean aritzeko jantzi erosoa ikusiko ditue eskura gure txikiek.



**Etxeko gazteenek be, mutiko zein neskato, dotore joateko non aukeratu zabala izango dabe aurtengo udaberri-udagaraian.**





# Izozkien antzera, koloretsu eta fresko



Udagaz batera, arropen kolorea be isiotu egiten da. Aurten, esaterako, hori, gorri eta fuk-sia koloreek lagunduriko laranja purua nagusituko da. Diseinuek haurren izaera indartzea dabe helburu, eta uda sasoiko fruta zaporetzuen kolore dirdiratsu eta argitsuetan oinarrituz, freskotatuna iradokitzen dabe. Atzera-puntada koloretsuek kotoi naturalagaz bat egiten dabe, eta ukitu informaleko lihozko bermudak be modan egongo dira 2009an. Kolore ugaritasun hori gitxi ez eta, kolore neutroak be helduko dira udabarran; beige, gris eta kaki kolorea, esaterako. Zeru urdinagaz edo zuri biziagaz be ederto joango dira gaztetxoak.

## Kolore distiratsuak

Zeru kolorekoa dogu itsasoa be eta uda heltzean nork eutsi bainu fresko bat hartzeko tentazinoari. Nagusioi tentagarri egiten bajaku, zer esanik ez gaztetxoei. Hondartzan zein igerrilekuan bainua hartzerako orduan, barriz, jantzi eroso ez gainera, kolore garbi eta distiratsuak ikusiko doguz. Marradun bainujantzia sekula ez dago tokiz kanpo. Marra zabalagoak edo estuagoak eduki leikez, gehiago edo gitxiago, baina urtea joan eta urtea etorri, marradun bainujantzia gaztetxoen hondartzetako jolasen eta bihurrikerien testigu izan da; neskena zein mutikoena. Marraz betetako bainujantziek ez daukie

sasoi bateko indarrak; baina gerri ingurutik behera horizontalean lerratutako bi-hiru marra zabalek ikutu goxoa emoten deusie bainujantziari.

## Graffitiak modan

Gazte izateak ausardia beragaz dakar eta badira graffiti tankerako bainujantziak gus-tukoago ditueenak. Aurten itxura horretakoak be sarri ikusiko doguz olatuekin jolasean. Mota horreetako marrazkiek bainujantzi osoa hartzen dabe, zurruntasunari zirrikiturik itzi barik. Ausartak, berritzaileak eta deigarriak dira.

## Tendentzia biak modan

Marradun bainujantziak kolore leunak asko eskertzen ditu. Izan be, aurtengo helburua ez da "hemen nago ni" esatea izango, elegantzia modu disimulatuan eta emeki zabal-tze a baino, itsas-brisaren freskotasun eta leuntasun beragaz. Kontrara, marrazki bizidun bainujantziek kolore biziak izango ditue, harro daudelako eta harrotasun hori erakutsi egin gura dabelako. Tendentzia biak modan dagoz. Bata zein bestea aukeratu, ume guztiek, neskatok zein mutikok, amaituko dabe busti-bustita eta harez beteta. Neskatoen, esandakoaz gainera, bikini eta trikiniak be izango ditugu aurtengo udan ikusgai.

Ukitu informaleko lihozko bermudak erakusleho guztietan topatuko doguz

Aurtengo udaberri-udan, kolore guztien artean laranja purua nagusituko da





# Adin guztietako umeak modan



**Umeen arropak ezin dira aspergarriak izan. Gazte-  
txoenek modari funtzionaltasunaz gain, bizitasuna eska-  
tzen deusie. Estilo anizteta arropa eskuratuz gero,  
umeak ez dira sekula nekatuko.**

**E**ra berean, urte bate-  
tik bost urtera bitarte-  
ko neska-  
mutikotxoeng-  
an marrek  
tendentzia  
markatu-  
ko dabe  
datorren uda-

barri-udan; halan be, horreekin batera ori-  
nak eta beroki koloretsu dibertigarriak be  
maiz aurkituko doguz. Letrazko printdun  
kamisetek eta kremailezako kirol-jertseek be  
apain-apain jantziko ditue etxeko txikienak.

## Neska mutiko koskorrak

Sei eta hamabi urte bitarteko neska-mutiko  
koskorren artean, barriz, marrek are eta pro-  
tagonismo handiagoa hartuko dabe. Eta euri-  
tako koloretsuak, marrak alkandoretan eta  
poloetan, botoi bikotzeko txaketak, tolesdura-  
dun gonak eta estanpatudun brusak ikusi

ahal izango doguz. Baleiteke deigarriena  
haren mozketa dakarreen nesken prakak iza-  
tea, baina, aitatutako berezitasun horretaz  
gainera, bestelako mozketa eta diseinuak  
arrunt-arrunt datoz 2009 honetan.

Halan be, kolore argiko estanpatu diskretu-  
dun broderie edo bainilazko xehetasunak  
daroezen oihal lisu eta oso freskoak be sarri-  
tan ikusiko dira nesken arropetan.

## Mutilen janzkera

Mutilentzako janzkeratik zerbait nabarmendu  
beharko balitz, praka luzeak pitillozko praka  
bihurtuko direla da, 'v' itxurako sama daukien  
jertseekin uztartuz.

Marinel estiloko janzkera be uda honetan  
mutikoen armairuetan ezingo da falta. Zuri  
eta urdina nahaztuz, alkondara eta praka  
piratekin dotore jantzita ikusiko doguz ume-  
txoak 2009ko udaberri eta udan. Janzkera  
horri lotuta osagaiak be izango doguz: gerri-  
koak, jertseak, txapelak, galtzak...



**Bost urteko neska-mutikotxoengan marrek  
tendentzia markatuko dabe**



**Sei eta hamabi urte bitartekoetan barriz,  
marrek protagonismoa hartuko dabe**

## Oinetakoak

Oinetakoei buruz berba egiterakoan argi ikusiko dogu tenperatura beroekin batera hel-  
tzen direla sandaliak haurren oinetara be, aurren kolore zilarreztatua izanik nagusi.  
Halan be, beti agertu leiteke edozein soinekorentzako aproposa den  
kolore zuriaren alde. Mutilen kasuan, oster, tirazko sandaliak  
izango dira dendetan gehien aurkitu ahal izango direnak.

Udaberrian umeak erosotasunez ibili daitezten,  
kolore guztietako zapatilak be oinetakoen arte-  
an jaun eta jabe izango dira. Marrakiz beteta-  
ko oinetakoek bizitasuna emongo deusie uda-  
berriko zapatilei. Mutikoen artean urdina eta  
berdea izango dira kolore erabilienak eta nesken  
artein barriz larrosa eta berdea.



Laubideta, 20 behea  
48220 Matiena  
tel. 94 681 09 82

urteentzako arropa  
tik 14 urterarte



## Bitxi handiak udabarriarekin bat eginez



Urtero legez, datorren udabarri-uda sasoiaren be jantzien dotorezia areagotzen lagunduko dabe bitxiak. 2009. urtea ez da bitxiak soinekoen joskeran txertaturik ikusiko doguzen lehenengo aldia izango, eta segurutzat azkena be ez. Hori dela-eta, sarri ikusi ahal izango doguz glamourra, luxua eta exotismoa askatzen daberen soineko deigarri eta eleganteak.

Baina, horreez gainera, mota guztietako bitxiak be jantzi eta erakusteko aukera egongo da udabarriko lehenengo eguzki printzekin batera. Estilo etniko zein abangoardiako lepo-koek, eraztunek eta beso-koek berezitasun komun bat izango dabe: tamainen handitasuna.



## Modernoenetik klasikoenera aukerak



Udagaz batera heltzen da urretan sartzeko gogoak, eta uger egiten erakutsiko ez deuskun arren, bainujantzirik bereziki dotorezia et elegantzia emongo deuskue.

Asko ikusi ahal izango dira aurretan osagarri ugariko elastiko osoak zein bi zatikoak, baina, era berean, koloretako harribitxiekin datozen bikini ezagunak be arrakasta izango dabe. Gainera, urtero legez, hutsik egiten ez daberen bainujantzi beltzak be bustiko dira urretan, dotorezia eskainiz, eta glamour zein fintasun ukitua dakarren bainujantzi zuria be presente egongo da hurrengo hileotan.

Esan bezala, emakumeek trikini, bikini eta bainujantzien artean aukeratu ahal izango dabe, eta sarri purpurinaz landurikoak izango dira, edo, ehun malguagaz nahasturikoak. Paparrek orratzekin eta bestelako motibo distiratsuekin lagundutako trikiniak be nabarmentzekoak dira. Era berean, loredun eta apaingarri laranjadun gris metalizatuko jantziak be modaren gailurrean egongo dira aurretan.

Baina, esperimentu ukituko eta kolore beroak nagusituko diren bainujantziak jantzeko aukerarik be egongo da 2009ko udan. Adibidez, gorria, morea, laranja, urdina, zuria eta horia itxura geometriko edo organikoez nahastuz.

Bestalde, hondartzetan edo igerilekuetan zehar ibiltzeko jantziek bainujantzien estanpatuen antzekoak dakarrez. Gasaz osatutakoak izango dira. Gainera, eskote bariatate ugariagaz aurkituko gara: ohorezko hitza, asimetrikoa, mahukarik gabekoa... Jantzi horreek begetazioa irudikatzen daberen hainbat neurriko lore eta begiztekin amaitutakoak dira.



## Larrosatik abiatuta, edonora

Udagaz legez, gura beste kolore eta tonu aurkitu ahal izango dira aurtengoan be makillajeari jagokonez, baina, tendentzia markatuko dauen kolorerik badago, larrosa koloretik abiatzen direnak izango dira nagusi.

Alde batetik, 60ko hamarkadan oinarritutako joera interesgarri bat ikusi ahal izan da moda pasareletan. Beltzaren gainean ezarritako hori ukitu ausart batez lortutako kaki koloreagaz apaindutako begiak ikusi ahal izango doguz. Baten batek joera ausartegia dela baderitzo horri, bizitza errelera be erraz-erraz egokitu daiteke, horiaren ordean gris ilun tonu baten osatutako matezko gerizpea erabiliz betazaletan. Amaitzeko, esandakoaren ondoren bekainetarantz gerizpe zuria zabaldu beharko da. Horregaz guztiagaz batera, larrosa leunez margoturiko ezpainak ikusi ahal izango dira, distira ahulekin lagunduta.

Halan be, aurretiaz aitatu dogun moduan, kolore larrosaren barietateak izango dira makillajeen oinarri. Esaterako, fukia ezpainetan, larrosa tonuko kolorete beroak, urdin koloreko gerizpe nabarmenduak eta larrosa koloreko pintzelkadaren bat.

Baina, badago larrosaren tendentziekin apurtzeko aukerarik be. Horren adibide dira beltza, beltz-marroia, beltz-bioleta eta beltz distiratsua. Kolore horreekin be azken joeren erakusle izan leiteke bat. Aholkuak aholku, urtero legez, esan beharra dago frogak egitean dagoela gakoak, horretara baxotzak berari ondoen joakona zer den ikusi ahal izango dau-eta.



y Sombra, Chiqui-Alai eta Nuevo Mundo, Bartzelonan; Chiki-Jai, Rosales eta Playa, Madrilen; Viques Vigon, Sierpes Sevillan, Tormes Salamancan, Valladolid, Tenerife... Sabadellen be zabaldu eben 1941ean, eta Durangoko bi pilotari izan ziren bertan: Begoña Ereñaga eta Mari Garate.

### Euskal Herrian

Erraketari asko eta intendente ugari euskaldunak izan arren, hemen –Bilbon eta Donostian– partidu profesional gitxi jokatzen ziren. Bilbon 1921ean ipini eben Euskal-Jai frontoia martxan, eta Donostiko Grosekoa 1938ko maiatzean. Eibarren modalitate honetako hiru eskola zegoen, eta horren eraginez makina bat pilotari irten ziren inguruan, Durangaldean barne. Eibartar asko ez eze, Ermua, Durango, Iurreta, Zaldibar eta Mallabiko emakume ugari izan

**Mallabia, Durango, Iurreta, Zaldibar eta Ermuko emakume ugari izan ziren erraketari**

**1940an eskolak eta frontoiak ixten hasi ziren, eta afizinoak behera egin eban nabarmen**

ziren erraketari. Lehen aipaturiko Begoña Ereñaga eta Mari Garatez gainera, Lutxi Arrube iurretarra, Pilar Garitaonandia “Azkoitia” eta Diana Garitaonandia “Txikita de Mallabia” aipatu leitekez, besteak beste.

### Gainbehera

1940an Euskal Pilotaren Espainiako Federazioa sortu zen, Moscardo jenerala bertako buru zelarik. Moscardok, Espainiar estatuko erraketa frontoiak itxi zituen, ez eutsalako, antza, ondo erizten emakumeak kirolari profesional izateari. Gainera, lizentzia gehiago emotea debekatu eban. Horren eraginez, hemengo eskolak itxi egin ziren eta afizinoak behera egin eban nabarmen. Pilotako beste modalitateak gailentzen joan ziren, eta emakumeek beste lanbide batzuk aurkitu zituen.

Amerikan urte batzuezt jarraitu eta hemen frankismoa amaitzear zela berpiztu arren, erraketak ez zeukan jada arrakastarik. 1980ko uztailaren 17an jokatu zen azken partidua Fronton Madrilan. ■ Markel Onandia

# “Hainbat material Idefonso Anabitarteren familiari eskerrak eskuratu dogu”



‘Erraketistak’ izeneko erakusketaren arduraduna da Javier Sagastizabal durangarra. Jose Maria Urrutiagaz batera, hainbat material bildu dau gai horren inguruan: argazkiak, kartelak, tresneria... Kontatzeko gauza asko dauka, zalantzarik barik. Erakusketa osatzeko bidean egindako lanari buruz berba egiteko, bere bulegoan hartu gaitu Sagastizabalek.

### Nondik dator erakusketa egiteko ideia?

Emakumeak hemen profesionalki jokatu dauen lehenengo kirola denez, martxoaren 8aren harira egitea adostu genduen. Arte eta Historia Museoan aurkeztu genduen proposamena, eta ondo iruditu jaken.

### Eta zein izan da erakusketa aurkeztu arteko prozesua?

Urrutia orain dela 4-5 urte eza gutu neban, eta geroztik hartu emona mantendu dogu. Berak erraketaren gaineko erakusketa txiki bat ipini eban Mungian, eta jenteari interesa piztu eutsan. Hori dela-eta, erakusketa zabal bat sortzea erabaki genduen, eta

orain dela urte eta erdi hasi ginen martxan. Durangon ondo ikusi eben egitasmoa, baina museo okupatuta zegoen oraingo data arte. Horregaitik, Emakume Langilearen Egunarekin lotzea pentsatu genduen. Erraketariei omenaldia egiteko Udalak lagundu euskun; Aitziber Irigoras alkatuek, batez be: gogotsu hartu eban; pilotari ohi baten alaba da.

### Nondik dator eskuratu dozu informazio hori guztia?

Bere garaian kirol hau jarraitzen neban eta erraketariak ezagutzen nituen. Baina hainbat material Idefonso Anabitareren familiagandik lortu dogu. Anabitarre gerra denporan desagertu zen, eta bere arrastoren atzetik genbilzela, izen bereko bilobarekin kontakta ztea lortu genduen.

### Anabitareren biloba izan da, beraz, zuen kontaktua.

Bai. Gainera, bere aititaren langileak izan ziren erraketari batzuekin hartu emona mantentzen dau, eta omenaldirako laguntza handia izan da.

## Erraketa estuak eta pilota gogorak

Hasiera batean, kirol hau gomazko pilotekin praktikatzen zen, Madrilen zabalduko 20 metroko frontoian. Pilotaleku laburra izan arren, jokamoldeari bizitasuna falta ei jakon, zenbaiten ustez; tartean Idefonso Anabitarre puntista donostiarraren ustez.

Baina, noski, pilota gogorakoak izateak erraketen aldaketa beekarri eban. Zabalera apur bat estutu egin zitueen, eta barruko sokak gogortu.

Ingalaterran egiten zitueen erraketa normalak baztertu, eta Valentin Zumalabe mutrikuarrak hartu eban berriak sortzeko ardura.



## Pilotalekuko jaialdietan, pasarelatik hurregi

Kirol honen bizian irudiak pisu handia izan eban. Ezin ukatu kirola zenik, baina askorentzat hori baino gehiago zen.

Frontoira joaten ziren ikusle gehienak gizonak ziren. Kirola eta apustua ez eze, emakume izateak bazeukan arrakastan eraginik. Noski, intendenteek be negozioa egiteko arma modura erabiltzen eben faktore hori.

Barritasuna zekarren kirol honek. Gauza berezia zen etxea eta familiaren kargu ziren emakumeak kirola egiten ikustea, eta, gainera, soldatapean izatea.

Sasoi jakin batzuetan erraketariak oso ondo baloratuta zegoen sektore diruduneko artean. Ez zen arraroa aktore edo politikofamatu bat erraketari batezag ezkondu ikustea.

Irudiaren erabilera horrek, baina, emakumeak bizi eban egoera islatzen eban. Frankismoan, adibidez, gonak orkatilertara arte luzatzera derrigortu zitueen, erosotasunari begiratu barik. Frankismoaren ondoren, modalitatearen azken urteetan, berriz laburtu zitueen gonak, irudian ikusi leitekeen moduan.





ERITZIA<sup>></sup>

kolaborazioa

## Gutunak @

## Gure umeak geure auzoan eskolaratu nahi ditugu: Abadiño-Zelaietako Herri Eskolan

Aurten 27 familia saiatu gara gure umeak matrikulatzen urte bikoien gelan Abadiño Zelaia Herri Eskolan 2009-2010 ikasturterako.

Eusko Jaurlaritzak, aitzakiaz harturik ume guztientzako plazarik ez dagoela, erabaki du ume batzuk beste eskola batera bidaltzea; gure auzotik hiru kilometrora, oso ezaugarri soziolin- guistiko ezberdinak dituen beste gune batera.

Behean sinatzen dugun gurasook uste dugu gure umeak euren auzotik kanpo matrikulatzeak ume horien deserrotzea ekarriko duela. Uste dugu gure umeek eskubide osoa dutela euren ingurune hurbileko beste umeekin batera hazi, ikasi eta gizarteratzeko. Eskolako bizikidetzak funtsezko gauza da adin horretako umeen integrazio eta prestakuntza prozesurako, eta talde hau osatzen duten 27 umeak honezkerok lokarri sendoz elkartuta daude, orainaldi eta etorkizun komun bat partekatzen dutelako. Lokarri horiek itxikeria burokratiko hutsez haustea onartezina da.

Ez dugu ulertzen nola Eusko Jaurlaritzak jaiotze-tasa bultzatzeko kanpainak egiten dituen, eta gero, ume gehiago egoteagatik eskolatan plaza gehiago behar direnean, ume ugaritasun hori arazo bihurtzen den. Gure ume guztiak geure auzoko eskola publikoan nahi ditugu, bakoitza bere eskola-plazaren jabe.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak entzungor egin dio gure eskariari, eta orain arte ez digu onartu ezta eurekin batzartzea ere, gaia elkarrekin aztertu eta konponbideak bilatzeko, nahiz eta Zelaia-tako Herri Eskola eta Abadiño Udalak osorik eta erabat geure alde dauden.

Gurasoontzat garrantzi handiko pausua da gure umeak eskolara lehen aldiz eramatea, euren kabuz ibiltzen eta gizarteratzen hasi daitezen, eta ez dugu nahi momentu eder hori trauma bihurtzea umeentzat. Horregatik prest gaude behar den indar guztia egiteko gure ume guztiak aukera izan dezaten euren auzoko Herri Eskolan ikasteko. Oinarrizko eskubide demokratikoa da, eta ezerk ez inork ez du lortuko eskubide horri uko egin diezaiogun. Onartu gure umeak Zelaietako Herri Eskolan orain! Inor kanpoan itzi barik!

Zelaietako gurasoak (Abadiño)

## Alkate berriari Zaldia elizateko plazatik

Zaldibarko alkate berria gogotsu estreinatu da kale izenen plaka berriekin, webgune berriztatuarekin eta herriko goi alderako hiru sarbide mekanikoren proiektuarekin: zorionak.

Aldatsa kaleko arrapala mekanikoak eta eskolatik elizarako eskailera mekanikoak Zaldia elizateko plaza inguruan batuko dira, bertan bizi eta ibiltzen garen onerako izango dira, baina horiek eta herrigune zaharreko birmoldaketa egiten den bitartean, Aldatsa eta Elizondo kaleetako eta Zaldia Elizateko Plazako zoruaren egoera negargarria da; batez ere, euria egiten duenean. Hurrengo udazken eta negua baino lehen zoru horrek behin-behineko konponketa bat behar du, azkenengoz zulo batzuren konponketak, susmagarriro, 2007ko udal hauteskundeak baino hiru egun lehenago egin ziren.

Horrelako ideiak eta hobeak jaso nahi badituzu, dei ezazu Tokiko Agenda 21a eta bertan ikusiko gara herritar guztion onerako lan egin nahi dugunok.

Delfin Zubizarreta (Zaldibar)

## Klik batean @



## Lurra egoera txarrean

Delfin Zubizarreta zaldibartarrak aurretik irakurgai izan dogun eritzi gutunagaz batera ondorengo argazki hau bialdu deusku. Idatzian dinona iruditan frogatzeko helburua daukala dinosku. Harlauzak falta direla azaldu deusku Zubizarretak, eta plazako beste leku batzuetan be lurra egoera txarrean dagoela.

## Klik batean @



## Eguaztenak eguasten

Abadiño hainbat lekutan jarri barri daben honako kartel hau ANBOTO astekariko irakurle bati deigarria iruditu jako. "Harritu nauena ez da Abadiñon altzariak eta tramankuluak batzeko zerbitzua martxan jartzea izan. Zerbitzu hori iragartzerakoan 'eguzten' txarto idatzita ikustea baino".



Aitor Aurrekoetxea

## Estetika

Estetikak diziplina gisa ez dauka zerikusirik gure hirietan sarritan ikusten ditugun gabinetek. Estetika, Logika eta Etikarekin batera filosofiaren arlo bat izango litzateke, eta bigarrenari ingelesez kosmetika deitzen diote. Zorigaitzez, gure parajeotan kontu honetan nahaste izugarria dago, eta beti Estetikaren kalterako, jakina.

Nire uste apalean, nahiz eta esango dudana politikoki zuzena ez izan, Estetikak eta Etikak, biek dute antzeko garrantzia gure bizitzetan; eta are gehiago esango nuke, gizakia ez litzateke ulertuko Estetikarako duen joera kontuan hartu barik. Izan ere, Estetikaren zereginetarako bat artearen filosofiaz hausnartzea da; eta diziplina hori, azken batean, esperientzia estetikoaz arduratzen da.

Estetikak kontzeptu eta kategoria askorekin lan egiten du. Ziur asko, horien guztien artean ezagunena Edertasuna izango litzateke. Ezin da ukatu denok dugula Edertasunarekin harreman bat edo beste, eta harreman hori nolakoa den, horrelakoxea izango da artearen unibertsoarekiko gure harremana.

Batzuek esango dute artea ez zaiela batere interesatzen, baina sentsibilitatea, irudimena eta entendimendua uztartzen direnean, esperientzia estetikoia izan genezake; hau da, gurean hiru fakultate horiek jolasten direnean, artearen misterioa desfraztze-ko bidea zabaltzen da. Hala ere, zenbat eta bagaje handiago izan, gozamina ere handiagoa izango da. Antonio Machadok esaten zuen moduan, ulertzen ez duguna bakarrik mespretxatzen dugu-eta.

Beraz, saia gaitezen artearekin harremanetan ipintzen, eta aska ditzagun zentzuak!



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



anboto  
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak  
2009ko martxoaren 20a - 8. urtea - 323 zk.

## Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

## Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

## Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

## Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

## Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onandia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

## Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.





# Inoiz ikusi gabeko deskontuak

Berriztatu zure sukaldea eta **3 fokoko indukzio plaka bat** oparituko dizugu

**%17ko**  
deskontua



**%10eko** deskontua • 20 hilabetetan ordainduta

larunbatetan zabalik 10:30etik 13:30era • 20 hilabetetan ordaindu interesik gabe

\*Martxoak 31 arte, sukalde osoa erostean



**Viedsa** cocinas  

FABRIKA - Durango - Elorrio errep. ABADIÑO - 902 12 10 24 - info@viedsa.com [www.viedsa.com](http://www.viedsa.com)



# AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Martxoaren 21ean 18:00etan

## TXANOGORRITXU

Bi mundu bereizitan gertatzen diren bidai biren istorioa dakarsku Bilboko Deabru Beltzak antzerki taldeak: 'Nora zoaz, Txanogorritxu?'. Otsoaren eta Txanogorritxuren bidaiak batzen ditu antzezlanak. Denetarik gertatu leiteke ipuin ezagunaren bertsino aske honetan. Lorak, ekaitzak, nahasteak, lagunak eta mila arrisku azalduko da, magian eta karatean aditua den eta otso beldugarriari aurre egingo deus Txanogorritxurentzat.

## ANTZERKIA

### DURANGO

» **'Murren bidai' (Behibi's)**, martxoaren 21ean, 18:00etan, San Agustin kultur gunean. Arraza Diskriminazioaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Udaleko Inmigratuzen Sailak eraturata.

» **'Emakumeak larru gorritan' (Sua)**, martxoaren 26an, 20:00etan, Plateruena kafe antzokian. Korrika16 eta Berbalagunen eskutik.

### ERMUA

» **'Variaciones sobre Rosa Parks' (Cambaleo-Madril)**, martxoaren 20an, 22:15ean, Loabiano kultur gunean.



» **Umeendako antzerkia: 'Kanpanilla eta Peter Panen itzala' (Txalo produkzioak)**, martxoaren 21ean, 17:00etan, Lobiano kultur gunean.

### ZORNOTZA

» **'Nora zoaz Txanogorritxu?' (Deabru Beltzak)**, martxoaren 21ean, 18:00etan, Zornotza aretoan.

## BERBALDIA

### ABADIÑO

» **Bazkaloste kulturalak: 'Konbentzioko gerla Euskal Herrian (baita Abadiñon be) eta I. Karlistadaren hasiera' (Hizlaria: Floren Aoz)**, martxoaren 21ean, 17:00etan, Zelaietako Zelaieta hotelean (sarrera 4 euro, kafea eta pastela barne).

### BERRIZ

» **'Ardura banaketa menpekotasuna daukien pertsonen zaintzan' (Hizlaria: Oihana Arregi psikologo)**, martxoaren 26an, 17:30ean, Jubilatuen Etxean.

» **goa**, martxoaren 26an, 17:30ean, Jubilatuen Etxean.

### DURANGO

» **Andoni Egañagaz solasaldia**, martxoaren 26an, 10:00etan, Arte eta Historia Museoa. Udal Euskaltegiak gonbidatuta, Korrika16ren baitan.

## BESTEAK

### DURANGO

» **Txiki Parka**, Landako erakustazokako 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Otsaileko eta martxoko asteburuetan egongo da zabalik, Udaleko Kultura Sailak antolatuta.

### ELORRIO

» **Koltxonetak eta tailerra**, martxoaren 21ean, goizean, Gernikako Arbola plazan. Intxorta asti taldeak antolatuta, 20. urteurrena dela-eta. **Galo eta erromatar moztarrotuta** gerturatzeraz gonbidatu dabe. **Herri bazkaria**, 14:30ean kiroledegian, eta ondoren **'Cesarren XII. Probak' ikuskizuna**. **Luhartz taldeagaz erromeria**, 19:00etatik aurrera, plazan.

## DANTZA

### DURANGO

» **Dantza tailerra: 'Dantzaldi ibiltaria' (AIKO taldea)**. Martxoaren 24an, 19:30etik 21:00etara, Plateruena kafe antzokian.

## DEIAK

### DURANGALDEA

» **Aisialdirako eskaintza kaleratu dau Ikastolen Elkarteak**. Horren aurrean begiraleak behar ditue. Horretan jardun gura daben gazteek apirilaren 5a arte daukie izena emotea. Euskalduna eta aisialdian esperientzia daukana izatea beharrezkoa da. Baita ingelesa menperatzea be, ingeles udalekuen kasuan. Kontuan hartuko dira: aisialdiko begirale/zuzendari titulua edukitzea, sorosle, elikagaien menperatzaile eta abarren titulua izatea eta formazioa zein gaitasun pertsonalak ([www.biekastola.net](http://www.biekastola.net) / [www.ikastola.net](http://www.ikastola.net))

### DURANGO

» **Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean.

Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

### IURRETA

» **Udaleku ibiltaria eta finkoa eratu ditu Kimuak aisialdi elkarteak**. Uztailean izango dira, eta izena emoteko Ibarretxe kultur etxera jo leiteke edo Durangoko Kurutzia ikastolara, martxoaren 24an eta 26an, 16:30etik 17:00etara ([kimuak@kimuak-elkartea.com](mailto:kimuak@kimuak-elkartea.com) / [www.kimuak-elkartea.com](http://www.kimuak-elkartea.com)).

## ERAKUSKETA

### BERRIZ

» **'Emakumea Durangaldeko eta Lea-Artibaiko landa ingurunean'**. **Argazkiak**. Kultur Etxean, martxoan.




### DURANGO

» **'Erraketariak'**. Martxoaren 29a bitartean Arte eta Historia Museoa.

» **Teleskopioak, pisu planetarioak, maketa argitzaileak...** martxoaren 26an, 27an eta 28an, San Agustin kultur gunean, 17:00etatik 20:00etara. Izarra astronomia elkarteak antolatuta 2009a Astronomiaren Nazioarteko Urtea izendatu dabela-eta.



» **Hiart Zamakona. Margoak**. Apirilaren 20a arte, Nualan Gunean.



### ELORRIO

» **'Emakumeak munduan' argazki erakusketa (Benito Pajares, 2006ko World Press Photo saria)**,



martxoaren 26a arte, Iturri kultur etxean. Martxoaren 8a dela-eta eraturako erakusketa.

### ERMUA

» **'Ernesto Che Guevara'. Argazkiak, liburuak, margoak...** Martxoaren 28a arte, Lobiano kultur gunean. Komite Internazionalistek eraturata.

## IKASTAROKAK

### ABADIÑO

» **Aitei zuzendutako afektibitate eta haurrentako masaje ikastaroa**, apirilaren 30etik maiatzaren 28a arte. **Aurkezpen berbaldia** martxoaren 26an, 18:30ean, Txanporta kultur etxean. Izena emoteko, Txanporta eta Errotan (94 466 94 20 / [berdintasun@abadiano.org](mailto:berdintasun@abadiano.org))



### BERRIZ

» **Igeri egiteko ikastaroak, mantenu gimnasia, nagusien gimnasia, step eta batuka, pilates, GAP eta kaloriak erretzeko ikastaroak**, Berrizburu kiroledegian. Izena emoteko epea martxoaren 21a arte dago zabalik; 10:00etatik 20:00etara jo leiteke bertara.



### DURANGO

» **Aisa-etorkinendako euskara ikastaroak**, apirilaren 21etik ekainaren 25era, astelehen, martitzen eta eguaztenetan. Gitxienez 12 eta gehienez 18 laguneko taldea osatu behar da. Izena emoteko azken eguna apirilaren 17a da, matrikula Udaleko Euskara Sailean egin behar da (94 603 00 30 / [www.durango-udala.net](http://www.durango-udala.net)).

» **Adinekoendako ikastaroak: 'Argazkigintza digitala', 'Osasun naturalaren tailerra: landare osasungarriak eta prestakinak', 'Landare eta baratzeak ekologiko-ki haztea', 'Aretoko dantzak', 'Lurrinterapia' eta 'Internet'**. Izena emoteko, Adinekoen Udal Egoitza. (94 620 03 21 / 94 603 00 00 Luz. 1710).



Durangaldeko usaina ezin deusugu transmititu, baina Durangaldea entzun, ukitu eta ikusteko...

**anboto** >  
komunikabideak



» **Makrobiotika eta osasunerako sukaldaritza ikastaroa**, apirilaren 25 eta 26an eta maiatzaren 23 eta 24an. Tina Asensioren eskutik emongo dira Artakuso ekodendak eraturako eskolak, Kurutzia ikastolan. Izena emoteko eta informazio gehiagorako Artakuso ekodendara jo leiteke edo honako telefonora deitu: 659 990 740 (Oihana).

**IURRETA**

» **Ikima tailerrak: laburmetrai tailerra**, martxoaren 20an, 17:30ean, Udal Liburutegian.

» **Guraso eta hezitzaileendako ikastaroa**, martxoaren 24, 26, 30 eta 31n, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Izena emoteko epea martxoaren 20a artekoa da. Horretarako Ibarretxe kultur etxera edo Maiztegi herri eskolara jo leiteke (94 620 03 42 / kultur-etxea@iurreta.net).

**IKUS-ENTZUN**

**ABADIÑO**

» **'Bidaia intimoak' (Jon Maia)**, martxoaren 25ean, 19:00etan, Zelaietako Txanporta kultur etxean; 26an, Traña-Matienako Errota kultur etxean.

**ERMUA**

» **'Dhaulagiri (8.167m)-Manaslu (8.156m)' (Hizlaria: Alex Txikon)**, martxoaren 25ean, 19:30ean, Lobiano kulturgunean. Artarrai mendi taldeak antolatuta.

**LITERATURA**

**IURRETA**

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**, maiatzaren 25a bitartean, astelehenera, 18:30etik 20:30era, Udal Liburutegian. Aurretik eskatuz gero haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe: (94 681 27 26 edo biblioteca@iurreta.net).

**MUSIKA**

**DURANGO**

» **Vomito + Never Surrender**, martxoaren 21ean, 22:00etan, Plateruena kafe antzokian.



» **Bjelave umezurtz-etxearen aldeko kontzertua: Juan Luis Anasagasti (tenorea) eta Jaime Butron (pianoa)**, martxoaren 21ean, 20:15ean, Santa Ana elizan.

» **Perkusino kontzertua**, martxoaren 26an, 19:00etan, Bartolome Ertzilla Musika Eskolako Aretoan. Blues eta rock bertsinok eskainiko ditue eskolako ikasleek.

**ELORRIO**

» **Arriolan Rock: Zura + DJ Ura (Euskal Herria)**, martxoaren 20an, 22:30ean, Ateneoan.



**GARAI**

» **Altzaga (Erandio) + Berduntza (Zierbana) + Lirain Txiki (Gorliz) abesbatzak**, hilaren 28an, 20:00etan, San Migel Goiaingeruaren elizan.

**ZINE-KLUBA**

**BERRIZ**

» **Zine emanaldia**, martxoaren 22an, 19:00etan, Kultur Etxean.

**DURANGO**

» **Zine emanaldia, Uztartuz elkartearen eskutik: 'Las mujeres de verdad tienen curvas' filma**, martxoaren 20an, 19:30ean, San Agustin kulturgunean.

» **Zine-kluba: 'Rocknrolla' pelikula**, martxoaren 26an, 20:30ean, Zugaza zineman.

**ERMUA**

» **Umeendako zine emanaldia: 'El viaje de Teo' filma**, martxoaren 22an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

» **Zine-klub zikloa: 'Che, el argentino' filma**, martxoaren 26an, 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

**ZORNOTZA**

» **Zine saio berezia: 'Once' pelikula**, martxoaren 23an, 20:00etan, Zornotza aretoan.



Martxoaren 21ean, 22:00etan

**VOMITO + NEVER SURRENDER PLATERUENEAN**

1984an sortutako punk talde gipuzkoarra izango dabe, asteburuan, Plateruena kafe antzokian. 1995ean kaleratu eben azken diskoa; halan be, igaz, *Siempre fue terror* bilduma be argitaratu eben (Puzkara records 2008). Vomitoren jarraitzaileek aukera ezin hobea daukie zapatukoa. Horrezaz gainera, Arrasateko Never Surrender taldeak be eskainiko dau bere musika proposamena.

**ZINEMA**

**DURANGO**

Zugaza

**Una pareja de tres**

Zuzendaria: D. Frankel

barikua 20:

19:00 / 22:00

zapatua 21:

19:30 / 22:30

domeka 22:

19:30 / 22:30

astelehena 23:

19:00 / 22:00

martitzena 24: 20:00



Umeendako zinema

**Una amistad inolvidable**

zapatua 21: 17:00

domeka 22: 17:00

**ELORRIO**

Arriola antzokia

**El truco del manco**

Zuzendaria: S. Zannou

zapatua 21:

22:30

domeka 22:

20:00

astelehena 23: 20:00



Umeendako zinema

**Bonkers (euskaraz)**

domeka 22: 17:00

**ZORNOTZA**

Zornotza Aretoa

**Revolutionary Road**

Zuzendaria: S. Mendes

zapatua 21:

22:00

domeka 22:

20:00



Umeendako zinema

**Barriola, San Adriango azeria**

domeka 22: 17:30

**BOTIKAK**

**Barikua, 20**  
09:00-09:00  
• Unamunzaga (Muruetarra Torre 2C - Durango)

**Zapatua, 21**  
09:00-09:00  
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)  
09:00-13:30 (\*14:00)  
• Unamunzaga / Sagastizabal / De Diego / Campillo / San Roma / Balenziaga (Durango)  
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)\*  
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)\*

**Domeka, 22**  
09:00-09:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)  
09:00-22:00  
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)

**Astelehena, 23**  
09:00-09:00  
• Navarro (Artekale 6 - Durango)

**Martitzena, 24**  
09:00-09:00  
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)

**Eguaztena, 25**  
09:00-09:00  
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)  
09:00-22:00  
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Abxondo)

**Eguena, 26**  
09:00-09:00  
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**SOS Deiak.....112**

**DYA .....94 620 28 00**

**Gurutze Gorria ....94 681 09 49**

**Osakidetza .....94 600 72 00**

**Ertzaintza .....94 466 93 00**

**Suhiltzaileak .....112**

**GARRAIOAK**

Euskotren.....902 54 32 10

Durango .....94 681 02 32

Bizkaibus .....94 448 40 80

Pesa .....902 10 12 10

Continental Auto ....945 286 466

**TAXIAK**

Abadiño .....946 814 470

Matiena.....606 459 988

Durango Geltokia....946 811 001

Goco Tour .....946 202 860

Tele Taxi .....944 102 121

Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026

Elorrio Geltokia .....946 820 040

J.L. Uriarte..670 402 002

I. Estebez ....670 678 273

M Galeano.....946 582 854

Iurreta .....946 201 565

**UDALAK**

Abadiño .....94 621 55 30

Atxondo .....94 682 10 09

Berriz .....94 682 45 84

Durango .....94 603 00 00

Elorrio .....94 658 27 12

Garai .....94 681 63 93

Iurreta .....94 620 12 00

Izurtza .....94 681 35 48

Mallabia .....943 17 14 61

Mañaria .....94 681 89 98

Otxandio .....945 45 00 20

Zaldibar .....94 682 70 16

**UDALTZAINGOAK**

Abadiño .....94 621 55 33

Berriz .....94 682 40 36

Durango .....94 603 00 10

Elorrio .....94 682 02 18

Iurreta .....94 620 08 88

**BESTELAKOAK**

Arriola .....94 658 31 92

San Agustin .....94 603 00 21

Zornotza Aretoa ....94 630 01 68

Gaszte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE .....94 620 36 47

Errota KE .....94 466 94 16

Gorabide .....94 681 24 35

Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51

Nekazal bulegoa ....94 681 15 20

Uren Partzuergoa ..94 681 74 86

Butanoa (UME).....94 681 08 77

Araztegia .....94 620 28 00

Foru Ogasuna.....94 681 07 42

INEM Durango .....94 681 12 96

Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58

Epaitegiak.....94 603 00 51

**EGURALDIA**

**4** **21° BARIKUA** ☀️  
Giro eguzkitsua jarraituko dau, baina tenperatura jaitxi egingo da. Zerua oskarbi egongo da, nahiz eta goizean behe-lainoa sortu. Ipar-ekialdeko haize hotza sartuko da eta tenperaturak behera egingo dau.

**3** **19° ZAPATUA** ☀️  
Giro eguzkitsua izango dogu, baina gauean izotza botako dau. Hodei gitxi ikusiko dogu, bereziki azken orduetan. Ekialdeko haizea ahul ibiliko da. Tenperatura minimo eta maximoak jaitxi egingo dira.

**6** **18° DOMEKA** ☀️

**5** **21° ASTELEHENA** ☀️

**6** **17° MARTITZENA** ☀️



Zuen etxeko maskotaren (txakurra, katua zein beste edozein animalia) gaineko dudak argitzeko aukera daukazu **Etorbide Albaitari Klinikari** esker apirilaren 3an aterako den aleko Lau Hanka atalean.

Zuen galderei erantzunez, **Alberto Cimarro** albaitariak gaixotasun eta heziketaren inguruko aholkuak emongo deuskuz.

Hasi, beraz, zuen galderak bidaltzen helbide honetara (izena eta herria ipinita):

**astekaria@anboto.org**



# anboto, durangaldeko astekaria

# Egin zaitez harpidedun



durangaldeko  
bherriak  
ezagutzeko

harpidedun egiteko, deitu  
94 623 25 23 telefonora edo  
harpidedun@anboto.org-ra  
zure izen-abizen eta helbidea bidali



# KIROLAK >



## Axpe berriro igoko dute 3. Duatloian

**M**ugarra Triatloi Taldeak Durangoko 3. Duatloia antolatu du martxoaren 28rako. Lasterketa Ezkurdin hasiko da 15:30ean, eta hantxe amaituko da ordu bi geroago. Parte-hartzaileek hiru tarte osatu behar dituzte: 9 korrika, 40 bizikletan eta, amaitzeko, beste 5 korrika. Bizikletako ibilbidean Axpe igoko dute berriro. Beraz, gogorragoa izango da aurtengo duatloia.

Iaz Axpeko aldapetan bidea konpontzen aritu ziren, eta igoera ibilbidetik kanpora utzi behar izan zuten. Aurtentz, kokxa hori berreskuratuta, hiru gailur izango ditu bizikletaz osatu beharreko tartak: Axpe, Miota eta Elorrioko saihesbidea. Azken hori ematen duena baino gogorrago egiten da haizeak jotzen badu.

Korrikako lehen tramuan atletek Orozketara joan-eterria

egingo dute; bigarrenean herri-gunean zehar antolatutako 2,5 kilometroko zirkuituari itzuli bi emango dizkiote.

Iaz, Patxi Urizarrek irabazi zuen gizonen artean eta aurtentz ere etorriko da. Virginia Berasategik oraingo ez du izenik eman. Horiez gainera, beste bost kategoria daude: hiru beteranoetan, eta bana gazteetan eta 23 urtez azpikoan.

**Mugarra Triatloi Eskolako gazteek erakustaldia eskainiko dute**

Lehen urte bietako arrakastak jarraipena izango du aurtentz. Izan ere, parte-hartzaile kopurua 300era mugatuta dago eta dagoeneko 270 lagunek eman dute izena ([www.triatloi.org](http://www.triatloi.org)). Federatuei lehentasuna ematen diete. Irabazleak 600 euro, txapela eta garaikurra jasoko ditu; bigarrenak 300 euro, eta hirugarrenak, beraz, 150.

### Spinning erakustaldia

Duatloiar jai giroa eman nahi izan diote, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Iaz oso harrera ona izan zuenez, aurtentz spinning erakustaldia egingo dute Ezkurdin, 15:35ean hasita.

Aurretik, 11:30ean, Mugarra Triatloi Eskolako neska-mutikoen erakustaldia eskainiko dute. Ondoren, Labeldun pintxoak erosi ahalko dira eta kafe degustazioa ere izango da. ■ J.D.

### 24 Berriztar bi binakako txapelaren bila

Asier Berasaluzek -Urberuagarekin- eta Ibai Zabalak -Mendizabalekin- bigarren mailako binakako finala jokatu dute bihar. Berrizek beste pilota egun handi bat biziko du.

### 25 Kulturala Kopako lehiari

Areto-futbolean Bizkaiko Kopari ekingo diote Durangoko Kulturalako emakumeek. Soloarte taldearen aurka jokatu dute domeka goizean, Landako kiroldegian.



# Kantxan arerio izango diren lagun bi binakako finalean

Asier Berasaluze eta Ibai Zabala berriztarrek bigarren mailako finala jokatuko dute; partidu atariko sentipenak azaldu dizkigute



Txapelketa honetan elkarren kontra jokatutako partidu biak Zabalak irabazi ditu. Judit Fernandez

Herrikide bi profesionaletako final handi batera iristea oso gubxitan ematen den jazoera da. Beraz, Berrizek badu zertaz harrotu. Etxeko gazte bik, Asier Berasaluzek (25 urte) eta Ibai Zabalak (21 urte) bigarren mailako binakako txapelketako finala jokatuko dute, bihar Zornotzan. Jaialdia 16:30ean hasiko da.

Berasaluze IX.ak Xabier Urberuaga du bizkarzain; Zabalak Aratz Mendizabal izango du aurreko koadroetan. Iaz, kasualitatea horrelakoxea delako, erasundar bi -Retegi II eta Escudero- aurrez aurre izan ziren finalean. "Ez ete da igazkoa pasatuko!" dio Berasaluzek. Izan ere, Retegik eta Argotek 22-2 irabazi zuten. Horrelakorik ez du ez bata ez besteak desio.

Bi pilotariak sasoiaren daude, eta ez dute eskuetan arazorik. Finalerdietan eskuetatik justu amaitu zuela onartzen du Zabala, baina errekuuperatuta dago.

Ligaxkako lehia biak Mendizabalek eta Zabalak irabazi dituzte

Eguaztenean finaleko pilotak baztertu zituzten. Berasaluzek eta Urberuagak azpitik dabiltzanak aukeratu zituzten, berriztarren sakea eta joa aprobetxatzeko asmoz. Zabala berak ere argi du, pilotari bakoitzak nerbioei eusteko duen gaitasunaz gainera, Asierren eskuinean egon daitekeela finalaren gakoa.

Gorriek material motelagoa aukeratu zuten, espero zen legez. Eta normalean inork ez duenez bere burua faboritotzat jo

nahi, Berasaluzek gorrien lanerako gaitasuna azpimarratu du: "Jo bai, baina gero pilotan egin behar da. Euren pilota gitxi galtzen dabe. Partidu gatxa izango da".

### Ligaxkan Zabala nagusi

Ligaxkan birritan jokatu dute elkarren aurka, eta bietan 22-20 irabazi dute Mendizabalek eta Zabalak. Partidu gogorak izan dira, eta "alde batera zein bestera jausi" zitezkeela onartzen du bietan garaile suertatu denak. Dena dela, memoria ez da alperrik dugun dohaia, eta Berasaluzek ondo gogoratzen du San Mateotan behin irabazi ziola.

Gorriek ligaxka ikaragarri ona osatu dute; zortzitik zazpi garaipen. Urdinek bost irabazi zituzten, baina Berasaluzek finalerdietan jokatu du txapelketako partidurik onena. ■ J.D.

I. Zabala: "Asierren eskumak partidua apurtu leike; eusten asmatu behar dogu"

A. Berasaluze: "Jo bai, baina gero pilotan egin behar da. Euren pilota gitxi galtzen dabe"

### PERFILA >

## Batak joa eta esperientzia du; besteak gaztetasuna eta ofizioa

Asier Berasaluzek 2005eko abuztuaren 14an debutatu zuen Asperekin Mallabian. Partidu erdian Apeztegia bikotekideak sudurrean kolpea hartu eta odoletan hasi zen, partidua bertan behera geratu zelarik. "Debuta sekula ez dela ahazten dinoe, eta nire kasuan gitxiago", dino brometan. 2006an bigarren mailako buruzko buruko txapela jantzi zuen. Profesionaletan darmatzan hiru urteetan esperientzia baliotsua pilatu du, eta

hori alde izango du finalean, denok ezagutzen dugun eskuinarekin batera.

Ibai Zabala profesionale-tara iritsi berria da. 2008ko maiatzaren 23an debutatu zuen, Asegarcerekin, Elorrion (irabazi egin zuen Pablo Berasaluzerekin). Oso gaztea da, baina baita oso pilotaria eta burutsua ere, eta ikasteko asko duen arren ofizioduna da. Lau t'erdikoan ezin izan zuen, eta biharkoa izango du lehen finala profesionaletan.

Pablo Berasaluze  
•Pilotaria



### Zorionak!

## Adituarentxokoa

2009ko martxoaren 21a. Biharkoa egun seinatua izango da aurrerantzean bizkaitarrentzat, baina, bereziki, Berrizko herriarentzat. Pilotaren inguruan mugitu izan den herrizat ezaguna dogu Berriz, beti pilotaren arloan lanean dabilen herri izateagaz lotzen dogu, baina oraindino ez doguz inoiz ikusi (nik gogoratzen dodala, behintzat) herriko seme bi profesional mailako txapel baten lehian final berean.

Horrelako ekitaldi berezi batek merezi dauen moduan, herriko tabernarik tabernarako ibilbide horretan gai nagusi, eta ia bakar, bihurtu da zapatuko finala. Batzuek Asierren alde jotzen dabe, beste batzuek Ibairen alde... baina gehienek neutralidade bat mantendu eta partidu ona egin daien gura dabe.

Polita baina era berean gatxa da Ibai eta Asierrek biziko daben egoera. Denok gura dogu finalera heldu eta irabaztea, baina horrek dakarren presino eta gogo biziak gobernatzen jakitea ez da erraza, eta hor biek ala biek lan gatxa beste garrantzitsua edukiko dabe.

Baina, beno, finalera lau besterik ez dira sartzen, eta eurak hor dagoz. Ondorioz, denon zoriona merezi dabela uste dot, eta zor, deusegun moduan, berriztarrok bertan egongo gara zapatuan bien jokoaz gozatzen.

Partidu on bat egin, bikain jokatu eta onenak irabazi daiala.

Zorionak eta aurrera, mutilak!

## Bigarren mailako binakako finalaren atarian, buruz buru

**Nor izango da amaieran aldageletara sartzen lehenengoa?**  
A.B./ I.Z.: Finala galtzen dauena, hori seguru.

**Finalean zenbat sake sartuko deutzazuz Ibaire, Asier?**  
A.B.: Bat be sartu ez arren 22ra heltzen banaz, ni konforme.

**Zabalera sakatuko dozu? Eta bi hormakoan Irujoren antzera?**  
A.B.: Bi hormakoen ez. Zabalera, baleiteke; berak be badaki hori.

**Ibai, zenbat sartuko deutzazuz Asierri ezkerre moztuta?**  
I.Z.: Berak galtzen dituenak. Baina saiatuko naz; berak be badaki hori.

**Zein da azken egunotan emon deutzueen aholkurik onena?**  
A.B.: Arinegi ez jokatzeke; ez prezipitatzeko partiduan zehar.  
I.Z.: Asierri pilota ezkerre mozten saiatzeko.

**Finala irabazi zein galdu, parranda egingo dozue?**  
I.Z.: Dudarik barik. Finalera heltzea ospatzeko nahiko motibo da.  
A.B.: Guztiz ados; hainbaten, Durangon elkartuko gara, gainera.

**Nork irabaziko dau lehenengo mailako binakako txapelketa?**  
I.Z.: Enpresakoek irabaztea gura dot, baina onenak irabazi daiala.  
A.B.: Bardin. Halan be, Aspekoak faboritoago ikusten ditut.

### Binaka 2009ko txapelduna



Asier Berasaluze

Ibai Zabala



# Durangoko Kulturalak Bizkaiko Kopari ekingo dio Soloarteren aurka

2006/07 denboraldian Kopa irabazi zuten, finalean Zurbaran menderatuta



Liga txukuna osatu eta bigarren amaitu dute, Getxo Kantxa liderraren atzetik. Judit Fernandez

Bizkaiko Kopari ekingo diote domekan Durangoko Kulturalako emakumeek. Txapelketa berezia da Kopa; laburra eta intentsoa, hutsegiterik onartzen ez duena. Joan-etorriko lau jardunalditan erabakiko dira finalerdiak; batzuk aurrera, besteak etxera. Partidu bakoitza final bat da. Kulturalak etzi goizean du lehenengo finala, Soloarteren aurka. Orain urte bi Kopa irabazi zuten –orduan Kurutzia deitzen ziren–, Zurbaran menderatuta.

**A. Egidazu: "Soloarte oso talde sendoa da; beti gainean egoten den horietakoa"**

Txapelketa hiru multzotan banatuta dago. Durangarren multzoa Soloartek eta Leioa Maiak osatzen dute. Joan zen asteburuan Soloartek 1-0 irabazi zion Leioari, lehenengo hiru puntuak batuz. Etzi basauritarrek Landako kiroldegia bisitatuko dute: "Taldea gogorra eta sendoa da. Lan asko egiten dute kantxan, eta beti gainean egoten dira. Partidu zaila izango da", aurreikusi du Amaia Egidazu Kulturalako jokalaririk.

Soloartek bosgarren amaitu zuen liga; Leioak, berriz, azkenbigarren. Beraz, teoriarik, Leioa Basauriko arerioa baino samurragoa da.

Bigarren multzoa Zurbaran, Getxo eta Iraultza taldeek osatzen dute. Lehenengo jardunaldian Getxok 6-1 menderatu zuen Zurbaran eta ligan erakutsi duten nagusitasuna ikusita, eurak dira kopa irabazteko faborito nagusi. Hirugarren multzoan Beti Arin, Goiztiri, Stilo Berria eta Kukuyaga taldeak daude. Multzo honetan Beti Arin da talderik arriskuetsuena.

**Soloarterekin batera Leioa Maia taldea dute multzokide**

**Ligan bigarren amaitu dute Getxoren atzetik eta 120 gol sartuta**

Multzo bakoitzeko lehenengo eta hiru multzoetako bigarren onena finalerdietarako (maiatzaren 10ean eta 17an) sailkatuko dira. Finala maiatzaren 24an jokatu da.

**Ligan ondo**  
Liga oso txukuna osatu du Durangoko Kulturalak. Partidu bi bakarrik galdu ditu denboraldi osoan, Getxoren kontra biak. Gainerakoan, 14 partidu irabazi dituzte eta 120 gol sartu. Dударik gabe, ligako talderik indartsuena izan dira Getxoren atzetik eta Beti Arinekin batera. ■ J.D.

## Agenda

**FUTBOLA**  
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)  
**Zaldia - Apurtuarte B**  
Domekan, 17:00etan, Solobarrian  
**BIGARREN ERREGIONALA Berriz B - Leketio B**  
Zapatuan, 16:00etan, Berrizburun  
**Ezkurdi - Lezama**  
Domekan, 18:00etan, Arripausuetan  
LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)  
**Iurretako - Basauritar emakume**  
Zapatuan, 17:00etan, Larrako-Zelain

**ARETO-FUTBOLA OHOREZKO B MAILA**  
**Elorriko Buskantza - Comodon**  
Zapatuan, 16:00etan, Elorriko kiroldegian  
**GORENGO MAILA**

**Kurutzlaga - Erandiotarrak**  
Zapatuan, 17:15ean, Landako kiroldegian  
**Elorriko Buskantza B - Boskozaleak**  
Zapatuan, 18:00etan, Elorriko kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA  
**Abadiñoako Gaztetxe - Joko Alai**  
Zapatuan, 15:10ean, Elorriko kiroldegian

**Abadiñoako Lagun - Presion Break**  
Zapatuan, 17:00etan, Berrizko kiroldegian  
**Mallabia - Bikalna**  
Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian

**BIGARREN ERREGIONALA Gu Lagunak - Gernika**  
Zapatuan, 15:45ean, Landako kiroldegian

**Hasi Durango - Kurutzlaga B**  
Zapatuan, 19:15ean, Landako kiroldegian  
**BIZKAIKO KOPA**

**Kulturala - Soloarte**  
Domekan, 10:30etan, Landako kiroldegian

**SASKIBALOA**  
LEHEN MAILA (emakumeak)  
**Tabirako Baqu - Uni. Navarra**  
Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

## Abadiñoak eta Elorriok justu eutsi diote mailari

Abadiño Xake Taldeak zorte itzela izan du. Obereneran kontra 1-3 galdu zuten azken jardunaldian. Ondorioz, Urnietarekin puntuetara berdindu zuten, baina averahea abadiñarren aldekoa zenez gipuzkoarrek galdu dute maila. Abadiñoak mailari eutsi dio.

Zaldi Baltzak etxeko lanak egin zituen Zuri Baltzari irabazita, eta besteen emaitzen zain egon beharrik gabe lortu zuten beste urtebetez Bizkaiko Gorengo Mailan jokatzeko eskubidea.

Larrasoloetak Euskal Ligara igotzeko aukera zuen, baina ustekabeen 3-1 galdu zuen Rey Ardid C azken sailkatuaren aurka. Hala ere, taldeak baditu pozteko arrazoiak; Larrasoloeta B eta C mailaz igo dira, eta datoren urtean Lehen eta Bigarren Erregionalean ariko dira.

**Aldeko averahea izan duelako eutsi dio mailari Abadiñoak**


### SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak	
1- Portugalete.....	54
2- Beasain.....	53
3- Amurrio.....	53
4- Elgoibar.....	53
5- Lagun Onak.....	53
6- Gernika.....	46
7- Zamudio.....	42
8- Basconia.....	41
9- Leioa.....	39
10- Zalla.....	39
11- Kulturala.....	37
12- Santurtzi.....	36
13- Amorebieta.....	35
14- Arenas Getxo.....	34

15- Laudio.....	33
16- Ordizia.....	30
17- Eibar B.....	28
18- Alaves B.....	28
19- Zarautz.....	24
20- San Ignacio.....	17

Saskibaloia / 1. maila / Jaitsiera Fasea / gizonak	
1- Tabirako.....	7 (+69)
2- Bidegintza.....	7 (+56)
3- Urdaneta.....	7 (+46)
4- Bide Bide.....	7 (+66)
5- Pamplona UPNA.....	5 (+37)
6- Mikeldi.....	4 (-10)
7- Mondragon Uni.....	3 (-33)
8- La Peña.....	3 (-35)
9- Goierri.....	3 (-119)
10- Getxo.....	1 (-77)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak	
1- Abaroa.....	19 (+245)
2- Gernika.....	18 (+271)
3- Bera Bera.....	18 (+372)
4- Ardoi.....	16 (+174)
5- Atletico SN.....	15 (+152)
6- Tabirako.....	14 (+39)
7- Getxo.....	14 (+66)
8- Obenasa.....	13 (+42)
9- Arabako EHU.....	12 (+5)
10- Irlandesas.....	9 (-181)
11- Uni. Navarra.....	8 (0)
12- Las Gaunas.....	7 (+223)
13- Artieda.....	6 (-171)
14- Easo.....	5 (-262)
15- Astigarraga.....	4 (-279)
16- Deusto-Loiola.....	3 (-256)



Durangoko Kulturalak 38 gol sartu eta 36 jaso ditu orain arte

**Betikoak**  
flexografia  
ofizinarako zigiluak  
fotolitoak  
Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA  
Tel.: 94 620 22 41

gremioen koordinazioa  
**urutiaga**  
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak  
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo  
erakusketa, salmenta eta ipintzea  
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

**MOMOTXO**  
**TABERNA**  
Plateruen plaza, 12  
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO



# EDERTASUN GIDA

## Ileapaindegiak

### M<sup>a</sup> JESUS LUQUE

• ileapaindegi unisexa •



**Kurutziaga**  
**9 behea**  
94 681 43 89  
48200 Durango

### Pilar Ruiz

• ileapaindegia •



SABECO Zentro komertziala • Tel.: 94 681 03 96



- Amaia Salazar
- Nukleo  
Ileapaindegia  
dauka Elorrión

## TXINATAR LISATUA

**Zure ileapaindegian ikusten dozuzen arazoetatik zein da gehien errepikatzen dena?**  
Plantxak asko erabiltzearen ilean sortzen diren arazoak dira arruntenak. Egia da plantxak erabiltzeak ez dauela ezelako kalterik eragiten esaten deuskuela, baina tresna horren gehiegizko erabilerak arazotxoak sortzen ditu: puntak zabaldu, ilea ezkatatu...

### Horren aurrean zer irtenbide proposatuko zeunke?

Aukerarik onena 'txinatar lisatua' egitea dela uste dot. Modu horretan, inork ez dau ilea egunero plantxekin lisatu behar, hazi arte. Gainera, azken urteetan teknika hobetu denez, emaitzak be hobetu dira; ez da ile guztian egin behar, zonaldeka be egin leiteke; kopeta-ilean bakarrik, adibidez.

### Nori zuzenduta dago?

Printzipioz, edonori; egokiena tratamendua jasan aurretik ilea hidratatzeko saio pare bat egitea litzake, baina kasu guztietan ez da beharrezkoa. Horretaz gainera, teknika horrek izan dauen hobekuntzari esker edozein ile-kizkur mota lisatu leiteke.

### Lisatu mota hori egin ondoren bestelako tratamendurik jarraitu behar da?

Hiru egun inguru pasatuta, ileapaindegira bueltatzea komeni da lisatuaren jarraipena egiteko. Gero, ilea hidratatuta mantentzeko produktu batzuk aplikatzea komeni da.

### NUKLEO

ileapaindegia



myspace.com/pelukerlanukleo

Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrión • Tel.: 94 658 29 94

### Adatz

• ileapaindegia •



- Irudi aldaketa
- Ilerako tratamenduak
- Fotodepilazioa

Zublaurre, 4 behea • IURRETA • Tel.: 94 620 06 28

## Estetika Zentruak

### Virginia Ansorena

• estetika •


- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekalena diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan



San Agustinalde, 1<sup>a</sup>A-1<sup>a</sup>C. 48200 Durango  
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 663 716 017

### Ana Camarero

• apaindegia •



LASER  
FOTODEPILAZIO  
MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1. esk. • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

### FOTODEPILAZIOA

